

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y DE LA EDUCACIÓN

*GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA*

**Graduado o Graduada en Maestro en Educación Primaria**  
*Lehen Hezkuntzako Irakasletzako Gradua*

**Trabajo Fin de Grado**  
*Gradu Bukaerako Lana*

**SAN FRANTZISKO ESKOLAKO SUKALDARITZA  
PROIEKTURA BIDERATUTAKO PROTOKOLOA**

**Ikaslea: Oihane Aranguren Martinez**

Tutorea: Fernando Trebol Unzue

Saila: Osasun Zientziak

**Arloa: Pedagogia Terapeutikoa**

**Maiatza, 2023**

## RESUMEN

Este trabajo se ha basado en un proyecto publicado por el Colegio Público San Francisco ubicado en Pamplona, en el cual tuve el placer de llevar a cabo mis prácticas este último año de carrera. Gracias a ello, pude cerrar mi trabajo colaborando con ellos y el proyecto *Cocinando mi Laboratorio*, coordinado por Susana Litago Sagardoy.

Mis estudios sobre Pedagogía Terapéutica me han facilitado el poder concienciarme sobre lo mucho que se habla y la poca inclusión y equidad que hay a día de hoy en muchos centros. Por ello, cuando se me presentó la oportunidad de poder elaborar un protocolo en el cual ayudar a profesores y profesoras a poder adaptar, en concreto este proyecto, acepté sin ninguna duda.

Este proyecto STEAM, basado en actividades interdisciplinares, está lleno de estímulos y retos, por lo que poder adaptarlo a cualquier alumno o alumna puede convertirse en un camino de rosas o en una tarea de lo más complicada.

Para ello he estado implicada en la preparación y parte teórica de este proyecto, y gracias a todas las facilidades que el Colegio Publico San Francisco me ha dado, he podido llevar a cabo este protocolo de intervención.

**Palabras clave:** inclusión; equidad; STEAM; protocolo; educación.

## ABSTRACT

This work has been based on a project published by the San Francisco Public School located in Pamplona, where I had the pleasure of carrying out my internship this last year. Thanks to this, I have been able to close my work collaborating with them and the project *Cocinando mi Laboratorio* coordinated by Susana Litago Sagardoy.

My studies in therapeutic pedagogy had made it easier for me to become aware of how much it is said and how little inclusion and equity is today in many centers. Therefore, when I had the opportunity to develop a protocol in order to help teachers to adapt, in particular this project, I accepted without hesitation.

This STEAM project, based on interdisciplinary activities, is full of stimuli and challenges, so being able to adapt it to any student can turn into a smooth road or a very complicated task.

For this reason, I have been involved in the preparation and theoretical part of this project, and thanks to all the facilities that the San Francisco school gave to me, I have been able to carry out this intervention protocol.

**Keywords:** inclusion; equity; STEAM; protocol; education.

## LABURPENA

Lan hau Iruñerrian kokatutako San Frantzisko Ikastetxe Publikoak argitaratutako proiektu batean oinarritu da. Bertan, nire unibertsitateko azken urtearen praktikaldiak burutzeko aukera izan nuen eta horri esker, nire lan hau ixteko aukera izan nuen, beraiekin lankidetzan eta Susana Litago Sagardoyk koordinatutako *Cocinando mi Laboratorio* proiektuarekin.

Nire Pedagogia Terpeutikoko ikasketei esker, ohartu naiz gaur egun, ikastetxeetan, inklusio eta ekitatearen inguruan asko hitz egiten dela baina gauza eskasak aurrera eramaten direlaz. Horregatik, protokolo hau sortzeko aukera eskaini zidatenean zalantzarik gabe onartu nuen.

STEAM proiektu hau, diszplinarreko jardueretan oinarrituta dago, eta horrek estimulu eta erronka ugari izateak dakar, beraz, ikasleren bati egokitzeko lana erraza edo konplexua bihur daiteke.

Horretarako, proiektu honen prestaketan eta atal teorikoaren lanketan inplikaturik egon naiz. Honi, San Frantzisko ikastetxeak emandako erreztasunak lotuz, esku hartze protokoloa gauzatzeko aukera izugarria izan dut.

**Hitz gakoak:** inklusioa; ekitatea; STEAM; protokoloa; hezkuntza.

## **AURKIBIDEA**

<b>SARRERA</b>	<b>5</b>
<b>1. HELBURUAK, GALDERAK ETA JUSTIFIKAZIOA</b>	<b>7</b>
1.1. HELBURU NAGUSIA	7
1.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK	7
1.3. GALDERAK	7
1.4. JUSTIFIKAZIOA	8
<b>2. MARKO TEORIKOA</b>	<b>12</b>
2.1. EKITATEA ETA BERDINTASUNA, ALDE EDO AURKA? INKLUSIOA NOREKIN?	12
2.2. DISZIPLINARTEKO PROIEKTUAK ETA STEAM METODOLOGIA	14
2.3. BERDINEKIN BAT EGITEKO BIDEAREN HASIERA	16
<b>3. PROIEKTUA MARTXAN JARTZEKO, IKASLEEN BEHARRETARA MOLDATZEKO ETA EBALUATZEKO PROTOKOLOA</b>	<b>17</b>
3.1. NOIZ MARTXAN JARRI?	17
3.1.1. PROIEKTUAREN HASIERAN. PROTOKOLOA MARTXAN JARTZEA	17
3.1.2. PROIEKTUAREN ERDIGUNEAN	17
3.2. IDENTIFIKAZIOA	18
3.2.1. IKASLEAREN EZAGUTZA MAILA	18
3.2.2. IKASLEAREN INGURUGIROAREN AZTERKETA	21
3.2.3. BEHAKETA	21
3.2.4. DATUEN ANALISIA. BEHARRAK HAUTEMATEA. NAHASMEN ETA DESGAITASUNEN INGURUKO INFORMAZIOA KONTSULTATZEKO ATALA	24
3.3. ESKU HARTZEA SUKALDARITZA PROIEKTUAN OINARRITUTA	28
3.3.1. DIAGNOSTIKO ZEHATZAREKIN AURRERA ERAMATEKO ESKU HARTZEA	29
3.3.2. DIAGNOSTIKORIK GABEKO ESKU HARTZEA	30
3.4. ESKU-HARTZEAREN EBALUAZIOA	41
3.4.1. IKASLEAREN EBALUAZIOA	41
3.4.2. PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA	42
<b>ONDORIOAK</b>	<b>44</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>46</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>49</b>

## SARRERA

Aurkeztutako protokoloa proiektuan lan egingo duten irakasleentzat esku hartzea egitekotan laguntza bezala erabiltzeko proposatu da.

Protokolo honen sorrera eskumena egiteko erraztasuna emateko eskaintzen da. Horretarako, esku hartzeaz gain, irakasleek ikasleen identifikazioa egiteko eta protokoloa aktibatuzko jarraipenak dituzte. Informazioz beteta dago eta beste proiektu batera moldatzeko aukera ematen du ere.

Lana hiru atal nagusitan banatu da. Alde batetik, honekin lortu nahi diren helburuak, lana egiten hasi baino lehen burutik pasatutako galderak eta protokolo honen sorkuntzaren justifikazioa edo azalpena.

Bestetik, marko teorikoa, zeinetan hiru alor nagusiren inguruan ikertu den. Lehenengoa, ekitatatea eta berdintasunaren kontzeptuen arteko ezberdintasunak eta nahastera eraman ditzazketen ezaugarriak. Inklusioarekin ere lotura egin da. Bigarrena, STEAM metodologia eta honekin lotu daitekeen disziplinarreko jardueren inguruko azterketa, lotura eginez nik landuko dudak proiektuarekin. Azkenik, Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen inklusioa bermatzeko hartu beharreko erabakien inguruan eta San Frantzisko Ikastetxeak, berez, esku hartzea aurrera eramateko hartutako erabakien inguruan.

Azkenik, protokoloaren funtzionamendua. Noiz martxan jarri, proiektuaren hasieran ala behin proiektua martxan jarrita, nola jokatu baldin eta aztertutako ikasleak diagnostiko zehatzik duen ala ez, eta ez izatekotan nola identifikatu eta horretarako beharrezkoak diren baliabide eta materialak eskaintzen dira. Nahasmendu eta desgaitasunen inguruan beharrezkoa den oinarritzko informazioa ere eskuratu daiteke bertan. Amaitzeko, esku hartzea nola egin, proiektura ere moldatutako materialak eskainiz, eta aholku eta ideiak emanez, eta behin esku hartzea amaitutzat emanda, prozesuari bukaera emateko balorazioa egiteko tresnak, bai protokoloa bai ikaslea ebaluatu ahal izateko.

Como bien acabo de explicar en euskera, el protocolo presentado a continuación es una herramienta creada para los profesores y profesoras que van a formar parte en el proyecto y se vean en la situación de tener que adaptar o intervenir en el proceso educativo de algún alumno o alumna.

Este protocolo se crea con el objetivo de facilitar el proceso de intervención. Por ello, a parte de la intervención ya mencionada, también se prestan herramientas para la identificación y los pasos a seguir para poder activar el protocolo. Este trabajo está lleno de valiosa información que se puede aplicar también para otros proyectos.

## San Frantzisko eskolako sukaldaritza proiektura bideratutako protokoloa

El trabajo se ha dividido en tres grandes partes. Por un lado, los objetivos que se quieren cubrir, las preguntas que me hice a mi misma antes de comenzar este trabajo y la explicación o justificación de por qué se crea este protocolo.

Por otro lado, el marco teórico, el cual se divide también en tres partes. La primera, la diferencia entre los conceptos equidad e igualdad y las pequeñas diferencias que pueden llevar a confusión entre ambas, las cuales se han relacionado también con el término de la inclusión. En la segunda se ha investigado la metodología STEAM y las actividades interdisciplinarias que se pueden conjugar a ella, haciendo hincapié en el proyecto con el cual voy a trabajar. Por último, sobre las decisiones que hay que tomar para poder integrar a los y las alumnas con necesidades específicas y especiales y sobre las medidas que toma el colegio público San Francisco.

Para finalizar, se habla sobre el funcionamiento del protocolo. Cuándo ponerlo en marcha, al principio o una vez comenzado el trabajo, cómo actuar en base a si el alumno con el que se va a trabajar tiene algún diagnóstico o no, y de no tenerlo, cómo identificarlo y todo el material e información necesaria para ello. Se incluye toda la información básica sobre las diversidades y trastornos con los que nos podemos encontrar. Por último, cómo intervenir, adaptado en gran parte al proyecto elaborado por el colegio San Francisco y ofreciendo material, consejos e ideas. También se ha añadido un apartado de evaluación para cerrar por completo el proceso del protocolo, en el cual se puede evaluar tanto al alumno y sus avances como el mismo protocolo y su funcionamiento.

## **1. HELBURUAK, GALDERAK ETA JUSTIFIKAZIOA**

### **1.1. HELBURU NAGUSIA**

Ikasleak haien irakaskuntza prozesuaren jabe bilakatzea, disziplinarreko ekintzen bitartez eta ikasleek izan ditzazketen erronkei laguntza emateko irakasleentzat lagungarria izan daitekeen protokoloa sortzea.

San Frantzisko eskolak aurrera eramango duen berrikuntza proiektu batean oinarritutako lana izango da.

### **1.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Ikasleek izan ditzazketen zailtasunak aurreikustea. Normalean, ikasleen irakaskuntza prozesua ez da lineala, eta agertu daitezkeen zailtasun horiei aurrea hartzeak garrantzi handia dauka.
- Zailtasun horiek identifikatzeko jarraitu beharreko pausoak eskaintzea, urratsez urrats bete beharreko argibideak eskaintzen digun dokumentua sortzea.
- Behin zailtasunak identifikatuta, erantzuna emateko baliabideak ematea, esku hartzea emateko estrategia ezberdinak proposatzea.
- Ikasleei sortu dakieken erronkei erantzuteko estrategiak eta baliabideak ematea, beti haren irakaskuntza prozesuaren jabe izatearen rola alde batera utzi gabe.
- Errealitatean aurki ditzazketen ezusteko egoerei aurre egiteko hezkuntza baliabideak ematea, landutakoa baliatuz egunerokotasunera eramateko eta bertan erabilgarriak izango zaizkien baliabideak ematea.

### **1.3. GALDERAK**

*Zergatik izan daiteke hain abstraktua irakasleentzat gure ikasleen inguruko irakaskuntza prozesuaren norakoak identifikatzea?*

Irakasleak ikasle askorekin jarduten dugu ikasgeletan, geroz eta aniztasun handiagoko ikasgeletan, eta horrek zailtasunak ekar ditzazke gure ikasleen arazo eta ahulguneak identifikatzeko momentuan. Ikasle bakoitzak bere oztopoak ditu irakaskuntza prozesuan zehar eta horiei ahalik eta erantzun egokiena emateko gaude gu, horretarako, ikerketa prozesu sakon bat aurrera eramatea komeni da, haien indarguneak bilatu ahal izateko eta beraiekin elkarlanean modu kooperatibo batean jardun ahal izateko.

San Frantzisko eskolako sukaldaritza proiektura bideratutako protokoloa

*Askotan proiektu handi baten aurrean gure burua ikustean, beldurra sentitzen dugu barnean, beharbada ez gara gai ikusten gure ikasle guztiei arreta berdina eskaintzeko edota haien zailtasun eta arazo guztiei erantzun bat emateko, nola ekidi barruko emozio horiek?*

Irakasle guztiok ezintasun sentsazio hori jasan dugun noizbait, oso lan bokazionala baita gurea eta beti gure esfortzurik handiena eskaintzen saiatzen garelako, baina askotan erronka handiak suposa dezaketen proiektu edo lanen aurrean ikusten dugu gure burua.

Euskarri bat izateak segurtasun kutsu bat ematen du normalean, baina askotan sortu gabeko euskarri baten bila gabiltza.

Albert Ellisek bere sinesmen irrazionalen teorian azaltzen duen moduan, pentsamenduek eragin handia izan dezakete gure alterazio psikologikoetan. Hau da, egoera edo ekintza batek (A) guregan pentsamendu bat sorrarazten du (B) eta pentsamendu horrek eraginda, guregan emozio bat sortzen da (C).

ABC teoria honek argi uzten duena da egoera edo ekintza batek ez duela gure egoera emozionala baldintzatzen, guk sortutako pentsamendua baizik. B-k C baldintzatzen du eta ez A-k.

Horregatik, ideirrazional horiek arrazional bilakatu behar ditugu galdera logikoak eginez, galdera enpirikoak eginez, pentsatzen duzun horren ebidentzia bilatuz eta galdera pragmatikoak eginez, pentsamedu hori behin eta berriz errepikatzeak zuregan ekar ditzakeen ondorioak aztertuz (Arroki, 2022).

*Nahiz eta ikasle baten diagnostikoa izan, irakasle askok oraindik ez dakite nondik hasi eta nori laguntza eskatu bere ikasleari esku hartze egokia emateko, guida baten beharra izango dugu?*

Guzti honi erantzuna ematearen helburua dauka protokoloa honek, irakasleek ziurtasun bat izan dezaten haien ikasle guztien beharrei aurre egiteko eta bakoitzari haren irakaskuntza prozesu pertsonalizatua emateko. Guzti hori aurrera eramateko lehenik eta behin zailtasunak zeintzuk izan daitezkeen eta horiei nola esku hartu jakitea beharrezkoa da, bai aurreikuspenak izan bai jokatzeko ereduren bat izatea ere. Horretarako prestatu da protokoloa, noiz martxan jarri ikasiko dugu eta horren funtzionamendua zein izango den ere.

#### **1.4. JUSTIFIKAZIOA**

Denbora luzez ikusezin egon arren, eskoletan aniztasunaren presentzia handia dela agerikoa da. Egokitzapenak, normalean, desagaitasunak dituzten pertsonen esleitzen dizkiegu modu inkonsziente batean, baina nire errealitatea aurtengo praktikan ezberdina izan da. Desgaitasunak alde batera utzirik, aniztasun kultural handiko eskola batean aritu naiz, 3 hizkuntz eredu aurrera eramaten dituen



eskolak. Honek ere zailtasunak dakartza proiektu amankomunak egiterako orduan. Izan ere, euskera, gaztelania eta ingelesaz baliatzen diren ikasleak dira, baina haien artean dagoen ezberdintasun maila oso nabaria da.

Horregatik, oso beharrezkoa iruditzen zait San Frantzisko eskolak martxan jarri behar duen STEAM metodologian oinarritutako sukaldaritzaren inguruko proiektua, bertan AG eta D ereduari aritzen diren ikasleak elkarlanean jardun beharko baitute. Nahiz eta eskola berdinean aritu, haien arteko ekintza amankomunak eta elkarbizitza oso eskasak dira, batez ere hizkuntza muga izanik.

Nahiz eta erronka handia suposa dezakeen, ikasleen motibazioa sustatzeko diszplinar-teko jarduerak oso baliagarriak izan daitezke, askotan ez baitute hizkuntzaren beharrik izango. Irakasgai ezberdinetatik arituko dira lanean eta protokolo hau oso erabilgarria egingo zaie proiektu horretan murgildutak dauden eta egongo diren irakasleei.

Protokoloa aurrera eraman ahal izateko hainbat pauso jarraitu behar izango dira eta irakasle bakoitzak argi eta garbi izan beharko du zein den bere papera protokoloaren funtzionamenduaren barnean.

Protokolo honen helburua irakasleek sostengu bezala erabiltzea da. Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea ez da lan erraza, izan ere, behar eta ikasleen erronka horiek etengabeko aldaketan daudelako, eta prozesu horretan parte hartzeak lan handia eskatzen du irakasleen aldetik. Horretarako, protokolo hau sortu da, irakasleek eskura izan dezaten baliabide bezala eta haien ikasleei ahalik eta esku hartze hobereana eman diezaieten. Zailtasun horien aurreikuspena, detekzioa eta esku hartzea prestatzera bideratuko gaituen sistema izango da.

Bestetik, BOEn argitaratutako 157/2022 legean aipatzen den helburuetako bat dioen moduan Lehen Hezkuntzako Etapan hezkuntza ekintza ikasleen esperientzia eta ikuspegi global batetik integratzen saiatuko da, eta ikasle bakoitzaren lan erritmoa egokitu beharko da. Ikasle bakoitzaren erritmoa ezberdina dela eta bakoitzaren irakaskuntza prozesua errespetatu eta indartu behar dela azpimarratu beharreko ideia izan beharko litzateke. (España, Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2022).

Lege honek azpimarratzen duen beste hezkuntza oinarria honakoa da: " En esta etapa se pondrá especial énfasis en garantizar la inclusión educativa, la atención personalizada al alumnado y a sus necesidades de aprendizaje, la participación y la convivencia, la prevención de dificultades de aprendizaje y la puesta en práctica de mecanismos de refuerzo y flexibilización, alternativas metodológicas u otras medidas adecuadas tan pronto como se detecten cualquiera de estas situaciones" (España, Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2022).

Nafarroako foru legea kontuan hartu dezakegu ere eta BON-NAOean argitaratutako 67/2022 Foru Dekretuan aipatzen den printzipio pedagogikoak dio arreta berezia jarriko zaiola hezkuntza-inklusioa bermatzeari, ikasleei eta haien ikasteko premiei laguntza pertsonalizatua emateari, parte hartzeari eta bizikidetzari, ikasteko zailtasunen prebentzioari eta egoera horietako edozein detektatu bezain laster, errefortzu eta malgutze mekanismoak, alternatiba metodologikoak edo bestelako neurri egoki batzuk abian jarriko direla ( Nafarroa, parlamentua, 2022).

Bestetik, proiektuaren helburu didaktikoak hauek dira eta Nafarroako 67/2022 Foru Dekretuan argitaratua:

- a) Bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutzea eta estimatzea, haiei jarraikiz enpatikoki jokatzeko ikastea, herritar aktiboa izateko prestatzea eta giza eskubideak eta gizarte demokratikoen berezko pluralismoa errespetatzea.
- b) Taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura, ikastean ahalegina egitekoa eta erantzunkizunez eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, nakin-nahia, interesa eta sormena izateko jarrerak ikasketa prozesuan, eta ekintzailletza.
- c) Gatazkak era baketsuan konpontzeko, eta indarkeriaren eta diskriminazioaren prebentziorako trebetasunak bereganatzea, eskolan, familian eta haiekin harremanetan dauden gizarte-taldeetan autonomiaz moldatzeko.
- d) Beste kultura batzuk, pertsonen arteko desberdintasunak eta emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasuna ezagutzea, ulertzea eta errespetatzea, eta pertsonak ez diskriminatzea etnia, sexu-orientazio edo identitate, erlijio edo sinesmen, desgaitasun edo beste baldintza batzuegatik.
- e) Gaztelaniaz edo hala dagokionean, euskaraz jakin eta hura modu egokian erabiltzea, eta irakurtzeko azturak garatzea.
- f) Atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, oinarrizko komunikazio konpetentzia bereganatzea, mezu errazak adierazi eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko aukera emanen diena.
- g) Matematikako oinarrizko konpetentziak garatu eta kalkulo eragiketa oinarrizkoak, geometria ezagutzak eta estimazioak egitea eskatzen duten problemas ebazten hastea, eta horiek guztiak eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzeko gauza izatea.
- h) Natur Zientzien, Gizarte Zientzien, Geografiaren, Historiaren eta Kulturaren alderdi duntsezkoenak ezagutzea, eta Nafarroako Geografia eta Historia eta haren hizkuntza, kultura eta ohitura aniztasuna ezagutzen hastea.
- i) Oinarrizko konpetentzia teknologikoak garatzea eta horiek ikaskuntzarako erabiltzen hastea,

eta haien funtzionamenduarekiko eta jasotzen eta lantzen dituzten mezuekiko espiritu kritikoa garatzea.

- j) Irudikapen eta adierazpen artistikoak erabiltzea eta ikusizko nahiz entzunezko proposamenak eraikitzen hastea.
- k) Higienea eta osasuna balioestea, norberaren eta besteen gorputza onartzea, desberdintasunak errespetatzea, eta gorputz-hezkuntza, kirola eta elikadura garapen pertsonal eta sozialaren aldeko baliabide gisa erabiltzea.
- l) Gizakiarengandik hurbilen dauden animaliak ezagutzea eta balioestea, eta haiek zaintzeko eta haiekiko enpatia izateko portaerak hartzea.
- m) Nortasunaren eremu guztietan eta besteekiko harremanetan ahalmen afektiboak garatzea, bai eta indarkeriaren, edonolako aurreiritzi eta diskriminazioen eta estereotipo sexisten aurkako jarrera ere.
- n) Era aktibo, autonomo eta osasungarrian mugitzeko eguneroko azturak hartzea, eta bide segurtasunerako hezkuntza eta trafiko istripuen prebentzioan eragiten duten errespetuzko jarrerak sustatzea.

## **2. MARKO TEORIKOA**

Protokolo hau aurrera eramateko, lehenik eta behin hainbat kontzeptu argitu behar ditugu. Hasteko, hezkuntzan, gaur egun, inklusioak eta ekitateak duten garrantzia eta nolako erabilera ematen zaien. Nahaste ugaria egoten baita berdintasun eta ekitatearen artean eta horrek larri kaltetzen du ikasleengan ematen den esku hartzea. Bestetik, protokoloa sortzeko oinarri bezala aztertuko dudana San Frantzisko eskolan aurrera eramandako proiektua eta haren oinarriak aztertuko ditut.

Para poder llevar adelante este protocolo, primero de todo hay que aclarar ciertos conceptos. Primeramente, la importancia que tienen a día de hoy la equidad y la inclusión en los centros educativos y el uso que se les da a ambos, debido a que suele haber mucha confusión entre el término igualdad y equidad y eso puede afectar gravemente a la intervención que se le hace al alumnado. Y por otro lado, voy a analizar el proyecto creado por el colegio público San Francisco en el que me voy a basar para poder crear este protocolo.

### **2.1. EKITATEA ETA BERDINTASUNA, ALDE EDO AURKA? INKLUSIOA NOREKIN?**

Suposatzen dut denok entzun dugula ekitatea eta berdintasunaren artean egon den betiko gatazka, eta bi kontzeptu hauek isladatzen duten irudia burura etorri zaizula berehala (1). Bata aniztasunarekin bat egiten duen kontzeptua dela esan dezakegu eta bestea, aldiz, ez, nahiz eta bere izenak kontraesanean dagoela dirudi.

Ekitateak ikasle guztien hezkuntza garrantzi berekotzat har dadin ziurtatzeaz arduratzen den printzipioa da ( UNESCO, 2017). Aldiz, berdintasuna, ikasle guztiei ematen zaien tratu berdinari dagokio, diskriminaziorik gabe.

Bi kontzeptuen definizioak irakurrita biekin ados egon gaitzke, izan ere, biek gizabanakoen eskubideen alde egiten baitute. Baina, begi zorrotzez ikertzen baditugu biak eta lehen aipatutako irudia buruan izanda, ondorio batera irits gaitzke: ikasle bakoitzak bere indargune eta ahulgune ezberdinak ditu eta horiei erantzuna emateko bakoitzak haren esku hartze espezifiko eta indibiduala behar izango du. Ezin zaizkie eskaini baliabide berdinak egoera desberdinetan dauden bi pertsoneri, bai sozioekonomikoki hitz eginez, bai hezkuntza arloan bai osasun egoerari dagokionez. Beraz, hona iritsita, berdintasunaren ikuspegiak edo pentsamoldeak gainbegirada bat behar duela esan dezakegu eta honen aplikazioa eskoletan geroz eta zorrotzagoa izatea.

Honen harira inklusioaren kontzeptua ere argitu beharra dago, gaur egun, hezkuntzan indar handia duen kontzeptua baita, eta hori da gure eguneko hezkuntzaren ibilbidea indartzen ari den printzipioa.

Inklusioa ikasleen presentzia, parte hartzea eta lorpenak mugatzen dituzten oztopoak gainditzen laguntzen dituen prozesua da (UNESCO, 2017).

Ondorioz, hezkuntza inklusioa aurrera eraman ahal izateko ekitatearekin bat egin beharko dugu, nahiz eta lan erraza ez izan.

Gaur egungo hezkuntza sisteman, inklusio eta ekitate printzipioak gauzatzeko dugun bitartekari sendoena curriculum da. Hori baita gure ibilibidearen norabidea finkatzen duen dokumenturik nagusiena.

UNESCOren “guía para asegurar la inclusión y la equidad en la educación” aipatzen duten bezala: “ezinezkoa da inklusio edo ekitaterako bidean aurrera egitea hezitzaileek haien ikasleen aniztasunari aurre egiteko duten gaitasunetaz zalantza baldin badute”. Eta hori izan da batik bat protokolo hau egitera bultzatu nauen arrazoietako bat.

Beraz, bi indargune horiek bat egitea lortu behar dugu gure etorkizuneko ikasleei ahalik eta hezkuntza erantzun egokiena eskaini ahal izateko.

Imagino que todos y todas estamos al tanto de la confusión que se ha creado con los términos igualdad y equidad y que se nos ha venido a la cabeza la famosa imagen que plasma perfectamente la diferencia entre ambos conceptos (1). Uno de los dos conceptos podríamos relacionarlo con la inclusión, en cambio, el otro, no, por mucho que su nombre suene contradictorio.

“La equidad consiste en asegurar que exista una preocupación por la justicia, de manera que la educación de todos los y las estudiantes se considere de igual importancia” ( UNESCO, 2017). En cambio la igualdad consiste en tratar de igual manera a todos y todas las alumnas, sin discriminar a nadie.

Leyendo la definición de ambos conceptos podríamos llegar a estar de acuerdo tanto con una como con la otra ya que las dos luchan por los derechos de los humanos. Pero si sacamos la lupa podemos llegar a una conclusión: cada alumno o alumna tiene sus puntos fuertes y sus puntos no tan fuertes, por ello a cada alumno hay que ofrecerle lo adecuado para él o ella en cada momento y cada situación, por lo que cada uno necesitará una intervención o adaptación más individualizada. A lo que quiero llegar es que no se les pueden ofrecer los mismos recursos a dos alumnos que no se encuentren en la misma situación, bien sea personal, socioeconómica, educativa o sanitaria. Una vez aquí, habría que darle un repaso al concepto de la igualdad y aplicarlo con cuidado en los centros educativos.

A raíz de esto también hay que hablar sobre el concepto de la inclusión mencionado anteriormente, ya que a día de hoy es un término que ha cogido mucha fuerza en el ámbito educativo.

“La inclusión es un proceso que ayuda a superar los obstáculos que limitan la presencia, la participación y los logros de todos los y las estudiantes” ( UNESCO, 2017).

Concluyendo, para poder llevar a cabo la inclusión en un centro educativo habrá que trabajar codo con codo con la equidad. “El currículo es el medio principal para efectivizar los principios de inclusión y equidad dentro de un sistema educativo”(UNESCO, 2017). Debido a que este documento es el que marca los pasos que los y las profesoras debemos seguir.

“No siempre se puede entender o celebrar el avance hacia la inclusión y la equidad en contextos donde (...) los educadores dudan de su capacidad para hacer frente a la diversidad de los estudiantes” (UNESCO,2017). Y esta principalmente es una de las razones que me ha impulsado a hacer este protocolo.

Por tanto, si conseguimos que ambos conceptos, igualdad y equidad, hagan uno y trabajen ambas unidas, daremos una educación de calidad a nuestros futuros alumnos.

## 2.2. DISZIPLINARTEKO PROIEKTUAK ETA STEAM METODOLOGIA

Aurten, Iruñeko alde zaharrean kokatuta dagoen San Frantzisko eskolan aritu naiz hilabete luzez practicum batzuk burutzen. Bertan, jakinmina piztu ninduen proiektu baten aurrean ikusi nuen nire burua eta zeren faltan egongo ote zen pentsatzen egon nintzen.

Proiektuaren izena *Cocinando mi laboratorio* da eta ikastetxeko koordinatzailea Susana Litago Sagardoy dugu. Disziplinarteko proiektu baten aurrean gaude eta nahiz eta zientziak oinarri bezala eduki metodologia aktiboen bitartez, artea, teknologia eta matematikak ere landuko dituen proiektua da.

STEAM ikuspegia hezkuntza berritzailearen protagonista bilakatu da azken aldi honetan eta proiektu hau honen adibide ikusi dezakegu.

Egun, gizartean gizabanako aktibo bilakatzeko biderik aproposena STEAM metodologiaren integrazio eta garapanean datza.

Hezkuntza bide berri hau gelditzeko etorri da, izan ere, pertsonok gizartean modu aktibo batean parte hartzea ahalbidetzen digun premia da, ezagutza, ikaskuntza eta pentsamendu kritikoa eta hausnarketa ahalbidetzen duena. Eta horregatik, gure ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko, gu, irakasle bezala, horren inguruko jakinduriaz mamitu behar gara, eta ikasle guztiei dagokion eta merezi duten kalitatezko hezkuntza hori eskaini ahal izateko ( Martín, 2022).

¿Qué tienen en común un ingeniero y una ingeniera informática y un portero de fútbol?  
Que los dos confían en su equipo y que ambos se dedican a sacar cosas de la red.

Educación STEM. Formación conciencia

Proiekturari dagokionez, ikasgeletan dagoen aniztasunak bultzaturik sortu zen aurrera eramateko ekimena. AGD hizkuntza ereduak eskaintzen dituen ikastetxea da eta horrek jatorrizko aniztasuna dakar. Ama hizkuntza ez euskera ez gaztelera duten ikasleekin lan egiten da eta horrela, abiapuntu bezala, ikaslea ez dago prest ulertzen ez duen hizkuntzan entzute aktibo eta memorizazioa lantzeko. (Litago, 2022).

Gainera, esan dudan moduan, Iruñeko alde zaharrea kokaturik dago, horrek Iruñeko eta inguruko auzoetatik ikasleak etortzea bultzarazten du. Jatorri eta etnia ezberdineko ikasle ugari aurki ditzazkegu bertan, eta horrekin bat eginez hizkuntza aniztasuna ere.

Honekin lotuta ikaslegoaren motibazio faltak kezkatu zituen irakasleak eta honi amaiera emateko proposamenarekin sortu zen behin behineko proiektua. Esan bezala, STEAM hezkuntza metodologian oinarrituta dago, hartatik, ikasleak izango dira haien irakaskuntza prozesuaren jabeak ibilbide osoan zehar.

Sukaldaritza izango da proiektuaren muina. Zientziak, matematika, hizkuntza eta artea izango dira elkarlanean landuko dituzten irakasgaiak, baina guztiak sukaldara eramango den produktu finala bideratuz.

Azken produktua ikasleek, haien kabuz, errezeta bat egiteko ekimena izatea izango da. Baina horretarako atzetik lan handia dago. Ikerketa lanak, analisiak, informazio bilketa, sormena garatzea, etab.

Proiektua martxan dago jada eta ez da lan erraza, ikasle bakoitzak haren %100a eskaintzeko eta emateko prest egon behar delako.

Ikaskuntza kooperatiboa izango da proiektuaren ardatz eta oinarria, izan ere, bizikidetzak bultzatzen laguntzen duen baliabidea da, bata bestearen desberdintasunak onartuz, integrazio, ulermen eta inklusiorako tresna sendoa izanik, horrela kalitatezko hezkuntza bermatuz (Litago, 2022).

Ikasleek gizarteratze eta sozializazioa dute egin behar nagusia proiektu honetan zehar, horregatik batik bat, Hezkuntza Laguntza Premia Berariazkoak dituzten ikasleen tokia zein den eta nola ikusten duten haren berdinek ikertzea oso garrantzitsua da. Honek asko baldintza dezakeelako haien garapena eta parte hartzea prozesu osoan zehar.

Ikerketa askok argi uzten dute hezkuntza inklusiorako gakorik indartsuena taldean modu kohesionatu batean lan egiteko gaitasuna izatea dela (Castaño et al. 2022 ). Horretarako, eskolako eremuak ikasleen premien arabera diseinatu behar dira, jarduera akademikoetan zein ez akademikoetan berdinekin parte har dezaten.

### **2.3. BERDINEKIN BAT EGITEKO BIDEAREN HASIERA**

Ainscow zientzilariariak esan bezala, hezkuntza inklusiborako funtsezko elementuak ikasle guztien presentzia, kokapena, parte hartzea eta lorpenak dira (Castaño, 2022). Ikasle guztiak aipatzen ditugunean, premia bereziak dituzten eta ez dituzten ikasleentaz ari gara. Ikaskuntza prozesuaren momentu batean edo bestean ikasle guztiek laguntza behar hori eskatzen baitute.

Nahiz eta ikasle guztien beharretara egokitu behar, lan hau irakasleentzat bideraturikoa izango da, irakasleei laguntza emateko eta haien beharrak ere asetzeko asmoarekin. Batez ere, hezkuntza premiak dituzten ikasleen aurrean gure burua ikustean sentiarazten dugun ikara hori ekiditeko. Horretarako eta gure ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko protokolo hau baliagarria izango dugu, haien berdinekin bat sentiarazteko eta gure laguntza ahalik eta azalekoena izan dadin.

San Frantzisko ikastetxeak hezkuntza premiak dituzten ikasleekiko bideratutako esku hartzea ikasgela barruan eskaintzen du beti, hori baita ikastetxearen funtzesko euskarria, eta horrek asko errazten du berdinen arteko harremanak sortzeko momentuan. Kohesio eta lan talde zailtasun horiek ekidi egiten dira honi esker eta gelakideen artean dagoen errespetua nabaria izan ohi da.



### **3. PROIEKTUA MARTXAN JARTZEKO, IKASLEEN BEHARRETARA MOLDATZEKO ETA EBALUATZEKO PROTOKOLOA**

Protokoloa esku hartze ofizialetarako burutu behar diren gomendio eta jarraibideak biltzen dituen dokumentua da. Bere funtzioa ekintza jakin batzuk gidatzea da, gorabeherak sahiesteko eta errespetua, integrazioa eta komunikazioa errazteko.

Aipatu berri dudana protokoloa gure ikasle guztien irakaskuntza prozesua aurrera eramateak bermatzen duen tresna izango da.

Irakasle eta proiektu honetan parte hartuko duten profesional guztientzat bideratutako baliabidea izatea da helburu nagusia.

#### **3.1. NOIZ MARTXAN JARRI?**

Behaketa eta ikasleen premien inguruan ditugun aurrezagutzak izango dira gure abiapuntua protokoloa martxan jartzeko.

##### ***3.1.1. PROIEKTUAREN HASIERAN. PROTOKOLOA MARTXAN JARTZEA***

Gure ikasleen premiak jakinik abiatzen dugu proiektua. Ikasle batzuen diagnostikoa eta esku-hartze mota esku tartean izango dugu baina beste hainbat ikasleen zailtasunekin proiektuaren aurrean ikusiko dugu gure burua.

Diagnostiko zehatza duten ikasleen kasuan proiektuan parte hartuko duten gainerako irakasle eta profesionalekin harremanetan jarri haren behaketa eta esku hartzea aurrera eraman ahal izateko.

Gainerako ikasleen kasuan ere, behaketa prozesua martxan jarriko da, orientatzailearekin harremanetan jarri behatutako ezaugarrien inguruan hitz egiteko eta kalitatezko esku-hartze edo laguntza eskaintzeko. Proiektuan parte hartzen duten gainerako irakasleak ere protokoloa martxan jarri behar denaren gainean egon behar dira.

##### ***3.1.2. PROIEKTUAREN ERDIGUNEAN***

Baliteke proiektuarekin egunak aurrera egin ahala, ikasle batek zailtasun nabariak dituelaz ohartzea.

Kasu honetan, protokoloa martxan jartzeko momentua da.

Behaketa prozesu bat eman dela suposatzen da oraingoan, horregatik, espezialista baldin bazara, tutorearekin hitz egin eta erabaki batera iritsi. Protokoloa martxan jartzea erabakitzen bada, orientatzailearekin hitz egin jakinaren gainean egoteko.

### **3.2. IDENTIFIKAZIOA**

Ikasleen premiei esku hartzea egin baino lehen, behar horiek zeintzuk diren identifikatu behar dugu haren proiektuarekiko eta hezkuntzarekiko ongizatea bilatzeko.

Honen xedea, irakasleari esku hartze egokia eskaintzeko jarraibideak ematea da.

#### **3.2.1. IKASLEAREN EZAGUTZA MAILA**

Atal honetan ikasleak bere emozioen, gaitasunen eta adimen exekutiboaren erabileran nolako baliabideak dituen jasotzen da.

##### **3.2.1.1. EMOZIOEN KUDEAKETA ETA ERANTZUNKIZUN EMOZIONALA**

Sentitzen eta sentiarazten dituen emozioak identifikatzeko gai da?, eta horiei erantzuna emateko? Kontzientzia emozionala 5 bloketan banatzen ditu Fernando Trebolek (Trebol,2023) eta proiektuan parte hartzen duten irakasleek horien inguruko analisisa egiteko beharrezkoa duten informazioa beheko taulan bildu da.

## 1. Taula

Konpetentzia emozionalen analisia

BLOKEA	GALDERA	ANALISIA	
KONTZIENTZIA EMOZIONALA	Bere emozioak identifikatzeko gai da? (poztasuna, frustrazioa, lotsa...)	BAI	EZ
	Emozioak modu egokian adierazten ditu?	BAI	EZ
ERREGULAZIO EMOZIONALA	Bere adierazteko moduek besteengan duen eraginaz jabetzen da?	BAI	EZ
	Klasean egindako ariketetan inplikatzeko da?	BAI	EZ
AUTONOMIA EMOZIONALA	Motibazioa agerikoa da ariketak burutzeko momentuan?	BAI	EZ
	Besteen aurrean haren emozioak edo sentipenak agerian uzten ditu?	BAI	EZ
KONPETENTZIA SOZIALA	Besteen emozioak edo sentipenak erresepetatzen ditu?	BAI	EZ
	Etorkizunera begira, helburu errealistak finkatzeko gaitasuna dauka?	BAI	EZ
BIZITZARAKO ETA ONGIZATERAKO KONPETENTZIA	Bere beharrak identifikatzen ditu?	BAI	EZ
	Beharrei erantzuteko behar diren baliabideak identifikatzeko gai da?	BAI	EZ

GBL honetarako ekoiztutako edukien sintesiaren taula (Aranguren, 2023)

3.2.1.2. GAITASUNEN BEHAKETA: Haurtzarotik heldutasunera bitarte, haurrek 5 gaitasun garatzen joaten dira ( gaitasun afektiboa, kognitiboa, soziala, psikomotorra eta komunikatiboa). Gaitasunen baten garapenean irregulartasunik baldin badago, ahalik eta azkarren identifikatu behar da. Horretarako Fernando Trebolek koordinatutako Hezkuntza Bereziaren Oinarri Psikologikoak aldizkaritik ateratako infromazioaz baliatuta, beheko taula hau sortu da .

## 2. Taula

Ikaslearen gaitasunak aztertzen

GAITASUN AFEKTIBOA	Bere buruarekiko errespetua erakusten du	BAI	EZ
	Bere buruarekiko irudi positiboa erakusten du	BAI	EZ
	Modu autonomoan lan egiteko gaitasuna erakusten du	BAI	EZ

San Frantzisko eskolako sukaldaritza proiektura bideratutako protokoloa

	Bere sentimenduak identifikatzeko gaitasuna dauka	BAI	EZ
GAITASUN SOZIALA	Gelan finkatutako baloreekin bat egin eta errespetatzen ditu	BAI	EZ
	Ikaskideek eta irakasleen emandako iritziak onartzen ditu	BAI	EZ
	Besteen ekarpenak errespetatzen ditu	BAI	EZ
	Modu aktiboan parte hartzen du	BAI	EZ
	Ikaskideekin jarrera pasiboa erakusten du	BAI	EZ
	Talde lanetan jarrera menderatzailea erakusten du	BAI	EZ
GAITASUN KOGNITIBOA	Idea abstraktuak ulertzeko gai da?	BAI	EZ
	Arazo baten aurrean, irtenbide bat baino gehiago garatzeko gaitasuna dauka	BAI	EZ
	Bere iritzien zergatiak azaltzeko gaitasuna erakusten du	BAI	EZ
GAITASUN PSIKOMOTORRA	Eskolako espazio batetik bestera joatean orientatzen da	BAI	EZ
	Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna erakusten du	BAI	EZ
GAITASUN KOMUNIKATIBOA	Hizkuntza batetik bestera aldatzeko gaitasuna dauka (euskera, gaztelania, ingelesa)	BAI	EZ
	Komunikatzeko baliabide ez-linguistikoa erabiltzen du	BAI	EZ
	Komunikatzeko baliabide linguistikoa erabiltzen du	BAI	EZ
	Komunikatzeko erregistro egokiak erabiltzen ditu	BAI	EZ
	Gelan behin eta berriz landutako gaien inguruan hitz egiteko gai da	BAI	EZ
	Testuren bat lantzean, elementuen arteko kohesio egokia egiten du	BAI	EZ
	Idazketa arauak eta egitura morfosintaktikoak errespetatzen ditu	BAI	EZ

### 3.2.1.3. IRAKURKETA ETA IDAZKETA

Irakurketa eta idazketari erreparatuz ere pista ugari atera ditzazkegu ikasleen inguruan. Horretarako, Ikastorratza aldizkari digitaletik eta unibertistatean ateratako apunteetatik informazioa bilduta beheko taula sortu da.

#### 3. Taula

Idazketa-irakurketa zailtasunak identifikatzen

ITEMA	X MARKATU
Hitzak letreiatzeko eta deszifratzeko zailtasunak	
Letren ordena nahasten du	
Letrak edo hitzak gehitzen, ezabatzen edo ordezkutzen ditu	
Irakurritakoa ulertzeko zailtasunak	
Hitzak silabetan banatzeko zailtasunak	
Irakurketa automatizatzeko zailtasunak	
Idazlanak eta ahozko aurkezpenak antolatzeko zailtasunak	
Ortografia akats ugariak egitea	
Letra larriak eta xeheak egoki kokatzeko zailtasunak	
Idazlan batean, marjinak, letraren tamaina edo/eta itxura erregularrarekin zailtasunak	
Hitzak bereizteko zailtasunak	

GBL honetarako ekoiztutako edukien sintesiaren taula (Aranguren, 2023)

### 3.2.2 IKASLEAREN INGURUGIROAREN AZTERKETA

Atal honetan ikaslearen kanpoko giroak edo egoerak berarengan izan ditzazkeen ondorioak aztertuko dira. Baliteke hemengo informazio asko eskuragarri ez izatea edo gurasoek eman nahi ez izatea, kasu horretan orientatzailearekin hitz egin eta berak duen informazioaz baliatuta taula osatu da. Aurreko taularen antzera, eskuratutako informazioa Hezkuntza Bereziaren Oinarri Psikologikoak aldizkaritik eratorritakoa da.

#### 4. Taula

Eskolaz kanpoko egoeraren analisia

Gurasoak bere ikaskuntza prozesuan parte hartzen dute	BAI	EZ
Ikaslearen familaren harremanak egonkorak dira	BAI	EZ

Anai-arrebak ditu	BAI	EZ
Etxeko giroa bere adinerako (11-12) ume batentzat egokia da	BAI	EZ
Eskolaz kanpoko jarduerak burutzen ditu	BAI	EZ
Etxera bidalitako lanen inguruan interesa erakusten du	BAI	EZ
Eskolaz kanpo bere adineko ingurugiroan aritzen da	BAI	EZ
Gelako ikaskideekin harremanak mantentzen ditu eskolatik kanpo	BAI	EZ
Eskolaz kanpo bere denbora ongi kudeatzeko gaitasuna dauka	BAI	EZ

GBL honetarako ekoiztutako edukien sintesiaren taula (Aranguren, 2023)

### **3.2.3 BEHAKETA**

Informazioa eskuratzeko erabili beharreko beste tresna garrantzitsua behaketa da. Erregistro bat aurrera eramango da saio bakoitzean ikusitakoaren inguruan. Behaketaren erregistroa jarraia izan behar da. Egunero sartu behar da ikusitakoaren inguruko datuen bat, bestela ez da eraginkorra izanen. Hemen behean, taularen erabilpenaren adibidea eskainiko da. Taula eredu hutsa eranskinetan (2) aurkituko da.

Taula hau sortzeko informazioa unibertsitatean landutako apunteetatik eskuratutakoa da. (Aranguren, 2022).

Gorputz hizkuntzaren atalean bere keinuen inguruko eta haren gorputz jarrerak eman dezakeen informazioa ateratzeko erabilgarria izango da; modu bortitzean aritzen baldin bada, kolpeak eman edo jasotzen baditu etab.

Ezaugarri endogenoak gorputz barneko portaera keinuak dira. Marrazkien interpretazioa oso baliabide sendoa izaten da kasu hauetan.

Ezaugarri exogenoak kanpoko faktoreek ikaslearengan eragin dezaketen jarreran datza; umore aldaketak, jokabide desafiatzaileak etab.

## 5. Taula

Saioen erregistro taula. Behaketa jarraia. Adibidea.

DATA	ESPAZIOA	GORPUTZ HIZKUNTZA	EZAUGARRI ENDOGENOAK	EZAUGARRI EXOGENOAK	AHOTSA
2023/04/24	Sukaldean	Plater bat hartu eta lurrera bota	_____	Jarrera desafiatzailea gelako ikaskideekin	oihuak
2023/04/26	Arte txokoan	_____	Marraskia: beltza eta gorria kolore nagusi, marraski txikiak	_____	isiltasuna

GBL honetarako ekoiztutako edukien sintesiaren taula (Aranguren, 2023)

### **3.2.4. DATUEN ANALISIA. BEHARRAK HAUTEMATEA. NAHASMEN ETA ANIZTASUN FUNTZIONALEN INGURUKO INFORMAZIOA KONTSULTATZEKO ATALA**

Diagnostikaturik gabe egon daitezkeen nahasmen eta desgaitasun ugariak daude gaur egun hezkuntza mailan, eta horiei aurrea hartzeko eta beharrezko erantzuna emateko baliabideak eta horien inguruko jakin beharreko oinarrizko informazioa hemen eskuragarri dago.

Atal honetan aurkitu daitezkeen informazioa Garbiñe Urreizti Lezertua irakasleak eskainitako informaziotik sortutako nire klaseko apunteetatik ertaorritakoa da.

#### **3.2.4.1. IKASTEKO APARTEKO ZAILTASUNAK**

Irakurmenean, idazmenean, arrazoimenean edo/eta matematikan zailtasunak izan ditzazketen ikasleak dira. Bertan dislexiak, disgrafiak eta/edo diskalkuliak ditugu.

Subjektu hauetan, normalean, ez dugu zentzumen alteraziorik edo garapen adimen batz bestekoan kalterik ikusiko, baina eragina dauka haien ikaskuntza prozesuan.

- **DISLEXIA:** Irakurketa prozesuan nahasmendua jasaten duten ikasleak dislexia izan ohi dute. Nahiz eta ohikoa izan beste alor batean ere zailtasunak izatea, hala nola, idazketan, matematikan edo/eta arretan.

Kontzientzia fonologikoa oso eskasa da, eta ondorioz, fonema-grafemaren arteko erlazioa ulertzea asko kostatzen zaie. Beste modu batera esanda, ibilbide fonologikoa ez dute behar den moduan erabiltzen, eta horrek ibilbide lexikoa garatzeko momentuan zailtasunak sortarazten dizkie.

Sintomak: Dislexiaren inguruan dagoen sintomatologia oso subjektiboa da pertsonaren arabera. Hala ere, oso ohiko da dislexia jasaten duten ikasleen artean sintoma edo seinale hauek noizean behin erreparatzea; zorabioak, buruko minak eta urduritasunak sortutako tripako minak irakurri beharreko momentuetan.

Irakurtzean, oso ohikoa da begi mugimenduak hautematea, baina horrek ez du zerikusirik ikusmen nahasmenduekin.

Amaitzeko, garrantzi handia duen alorra ere, alor emozionala da. Ikasle hauek gutxiagotasun sentimendu konstantea azaleratzen dute, frustrazioa eta antsietatea erakarritz (Atencia et al, 2021).

- **DISGRAFIA eta DISORTOGRAFIA:** Idazketa ikuspegi komunikatibo eta soziala duen prozesu kognitibo konplexua da.

Bi nahasmenduek idazketa prozesuan eragiten dute baina haien arteko desberdintasuna identifikatzea garrantzitsua da.



Disortografia idazkeran dauden akats multzoari egiten dio erreferentzia. Letra irakurgarria izan dezake baina edukian, ortografian dago arazoa. Aldiz, disgrafia, letraren itxuran oinarritzen den nahasmendua da (trazua, tamaina, etab.).

Ortografiaren nahasmenduak disziplina hura menderatzeak zailtzen du, nahiz eta irakurketaren nahasmendu espezifikoren baten aurrekaririk ez egon (Mayorga, 2018).

Nahasmendu hau jasaten duten ikasleak testuak planifikatzeko zailtasunak izan ditzazkete. Horregatik, gaitasun komunikatiboei erreperatzeak identifikatzeko bidea asko erraztu dezake, horretarako *Noiz martxan jarri?* atalean aurki daitezkeen 2.taula erabili behar da.

#### 3.2.4.2.AUTISMO ESPEKTROKO NAHASMENA

Autismo espektroko nahasmenen barnean entzunenak Autismo eta Asperger sindromeak dira, hala ere, haurren nahasmendu desintegratiboa eta zehaztu gabeko erabateko nahasmenduak ere aurki daitezke multzo honen barnean.

Nahasmen honek, maila handiago edo baxuago batean, hiru eremu ezberdinetan kaltea eragiten du: interakzio sozialean, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioan eta haien interes edo portaeretan.

Gaur egun, autismoa oso heterogeneoa da, hau da, ikasle edo haur bakoitzean eragin desberdinak izan ditzazke. Haien arteko ezaugarriak izugarri alda daitezke.

Aipatu berri dudan moduan 3 eremuetan kalteak jasotzen dituzte eta horiek sakonki aztertuko dira.

Gizartean emozionalki inplikatzeko zailtasun handiak dituzte, baina oztopo guzti horiek hautsi daitezke esku hartze egokia eta prozesu aberatsgarria aurrera eramanda.

Zailtasunak dituzte ikaskideen arteko harremanak finkatzeko, izan ere, emozionalki inplikatzeko gaitasun mugatua dute. Badira taldean harremanak izateko gai diren umeak ere, baina interakzio horiek errepikakorrak suertatzen dira azkenean.

Orokorrean, komunikatzeko interes hutsa erakusten dute. Normalean esaldi laburrak, keinu bidezko hizkuntza edo ekolalien bitartez komunikatzen dira.

Interesak izaten dira normalean haien berdinekin dituzten erlazioetan arreta gehien deitzen duenak. Izan ere, berdinekiko jolasetan ez dira modu egoki batean integratzen, ez baita beraientzat motibazionala.

Askok ere motrizitate finean alterazioak islada ditzazkete. Manipulatibotik atera ez daitezkeen ikasleak normalean.

Guzti honek emozionalki kaltetzen die, baina haien emozioak kudeatzeko zailtasunak erakusten dituzte; frustrazioa, haserrea etab. kontrolik gabe plazaratzen dute askotan, eta horrek ere arreta deitu dezake bere berdinean.

### 3.2.4.3. ARRETA GABEZIA EDO/ETA HIPERAKTIBITATEA

Sintoma asko plazaratzen dituen nahasmendua da baina hiru multzo nagusietan sailkatu daitezke: arreta gabezia, hiperaktibitatea eta inpulsibitatea.

Nahasmendu honek ikaslearen irakaskuntza prozesua oztopa dezake, izan ere, ikasteko hainbat zailtasunekin lotura baitu, hala nola, irakurtzeko edo idazteko gaitasunetan.

Ikasle hauek askotan ez dira ohartzen haren ekintzek izan dezaketen ondorioetaz, eta horrek kalteak eragiten dizkiete. Emozionalki ez dute autoestimu altua izateagatik arreta deitzen, izan ere, askotan, haien jokabideen ondorioz barregarri sentiaraztearen sentsazioa izan ohi dute.

Garbiñe Urreizti, UPNAko irakasleak, argitu zuen moduan, AFN-Harekin loturiko arazoak ugariak dira. Ezaugarri orokorrak dira baina analisia egiteko beharrezkoak dira erreparatzea.

Jokabideari dagokionez, aurkariak izaten dira, arauak errespetatzea kostatzen zaie eta desafiatzaileak izatera irits daitezke.

Harremani erreparatuz, gizartearen aldetik etiketatuak sentitzen dira, haien autoestimuan kalte eginez. Gizarte trebetasun eskasak erakusten dituzte eta kritikak jasotzea asko kostatzen zaie.

Alor emozionalean ere zailtasunak erakusten dituzte eta frustrazioa izaten da eskutik daramaten sentimendu desatseginena. Hura neurtzea lan zaila izaten da. Frustrazioak eraginda haien lanei eta motibazioei askotan amore ematen diete. Gainera, bat bateko umore aldaketak jasaten dituzte.

Amaitzeko, zailtasun akademikoak daude. Esan bezala, irakurketa eta idazketarekin loturiko zailtasunak izaten dituzte, baina ez dira oztopo akademiko bakarrak. Lan baten aurrean, ikasketa prozesua hasi baino lehen edo lan talde batean, plangintza aurrera eramatea asko kostatzen zaie. Inprobisatzea izaten da haien baliabiderik erabiliena. Ordena eta txukuntasuna mantentzea ere lan handia izaten da beraientzat.

### 3.2.4.4. DESGAITASUN FISIKOA

Desgaitasun fisikoak ez du adimen desgaitasunik edo urritasunik ekarri behar, beraz, kasu hauetan beharrak gehienbat fisikoak eta espazialak izango dira.

Ikasle hauek borondatezko mugimendu koordinatuak eta orekari eusteko zailtasunak dituzte. Giharrak beti tentsioan izan ohi dituzte, ez baitute haien gaineko kontrolirik.

Ingurugiro fisikoaren harreman ugariak izatea izugarri kostatzen zaie, izan ere, haren gaitasun sensorialetan ere asaldurak jasaten dituzte. Askok, minaren, presioaren edo/eta tenperatura sentipenak zati batean edo osotasunean galtzen dituzte. Entzumen eta ikusmen gaitasunetan ere kalteak jasotzen dituzte, horrek espazioan barna mugitzeko oztopoak jartzen dizkie, gainera, begien mugimendu espasmodikoak agerikoak izaten dira.

Hizkuntzari dagokionez, bai ahoko bai idatzizkoan ere, eragozpenak izan ditzazkete. Ikasle batzuei zaila egiten zaie aho komunikazioaz baliatzea, ahotsa ateratzea erronka bat suertatzen delako beraientzat arnasketa eta organo fonoartikulatorioen koordinazio ezintasunarengatik.

Esan bezala, mugimen ezintasun handia duten ikasleak daude, eta horrek ere hizkuntza idatzian kaltetzen die. Hasteko, arkatza eusteko zailtasun nabariak izan ditzazkete, eta horrek trazuak egiteak izugarri zailtzen die. Grafiari dagokionez ulertzeko zaila izaten da, ez baitute euskarri finkorik.

Iraizketa prozesuetan asaldurak izan ditzazketen umeak ere aurkitu daitezke desgaitasun fisikoa duten ikasleen artean. Kasu hauek, giharrak landu ez izanaren ondorio zuzenak dira eta komunera joateko independentzia falta dute. Baita komunikatzeko ezintasuna ere arrazoi nagusia dugu. Ezin baitute komunera joateko gogoia dutela adierazi.

Ezaugarri guzti hauek haien egoera sozio-emozionalean eragina dute. Ingurukoekin harremanak sortzeko mugak dituzte. Guzti horri gehitu behar zaio jasaten duten antsietatea, autoestimu baxua, motibazio eta arreta maila baxua.

Horregatik batik bat, helburua, mugapen horiek sortu ditzazketen desabantailak sahistea edo ahal den modurik eraginkorrenean egokitzea da, oztopo arkitektonikoak, pertsonalak eta sozialak gaindituz.

#### 3.2.4.5. IKUSMEN DESGAITASUNA

Ikusmen zailtasunak isladatzen dituzten ikasleak ugariak dira, baina, ikusmen urritasuna duen ikasle bat identifikatzeko, bi begietan, objektuen xehetasunak bereizteko gaitasun urria edo ikus eremu gutxitua izan behar dute.

Egun, estatu mailan, ikusmen desgaitasunaren inguruan informazio eta baliabide gehien eskaintzen dituen erakundea ONCE da.

Ikasle hauek ikusmen kanala kaltetuta dutenez, inguruko informazioa entzumenaren eta ukimen aktiboaren bitartez jasotzen dute. Ondorioz, imitazioz egin beharreko irakaskuntza egitea ere ezinezkoa dute eta haien autonomia mailara iristea gehiago kostatzen zaie.

Adimena ez da zertan kalteturik ikusi behar, bakarrik informazioa eskuratzeko kanala.

Profil hauetan hiperaktibitateko joera egon daiteke, batez ere, ikusmen hondarra gordetzen duten umeetan. Motibatuko dien zerbaiten bila ibiltzen baitira.

#### 3.2.4.6. ENTZUMEN DESGAITASUNA

Entzumen desgaitasuna pairatzen duten ikasleek, entzumen urritasuna izan behar dute bi belarrietan.

Honek, ondorio zuzena izan dezake ahoko hizkuntza eskuratzeko zailtasun bezala.

Entzumen urritasuna jasaten duen ikasle batek izan ditzazkeen irakaskuntza zailtasunak, haren entzumen mailaren galeraren arabekoak izango dira.

Andaluziako batzarrak argitaratutako *Manual de Atención al Alumnado con Necesidades Específicas de Apoyo Educativo Derivadas de Discapacidad Auditiva*-ren arabera, eskolan, entzumen arazoak dituen ikasle bat identifikatzeko alerta seinaleak honakoak dira:

- Irakaslearen jarraipenak ulertzeko eta gogoratzeko zailtasunak
- Bere hizkuntza ez da oso ulergarria
- Hiztegi maila baxua
- Arreta mantentzeko zailtasunak
- Talde dinamiketan ez du parterik hartzen
- Isolatzeko joera
- Ez du beti bere deietara erantzuten
- Ahozko komunikazioan egitura sinpleak

Kasu hauetan, ikasleak izan ditzazkeen informe medikoak oso baliagarriak dira.

Aipatu bezala, ikasle bakoitzak izan ditzazkeen zailtasunak oso ezberdinak dira, beraz, ikasleen beharrak heterogeneoak dira. Hortaz, modu orokor batean aipatuko dira.

Nahiz eta ikasleak kokleako inplantea eraman ikastetxe mailan beharrezkoak diren egokitzapenak honakoak dira; ahozko hizkuntzan laguntzeko komunikazio estrategiak sustatzeko komunikazio sistema gehigarriak eta ikasgelan sortu daitekeen zarata maila kontrolatzea batik bat. Irakaslearen kokapena ikasgelan kontuan hartu beharreko beste alderdia da, geroz eta irakaslearen lekutik gertuago egon, entzumen eremua geroz eta aproposagoa izango da.

Ikusmen desgaitasuna duten ikasleen antzera, entzumen urritasuna duten ikasleen gainerako zentzumenak ahalik eta gehien estimulatu behar dira, ahal izanez gero, entzumen ondarra ere guztiz aprobetxatuz.

### **3.3. ESKU HARTZEA SUKALDARITZA PROIEKTUAN OINARRITUTA**

Esku hartzea aurrera eramateko prozedura ez da berdina izanen irakaslearen arabera. Diagnostikaturiko ikasleak izango ditugu, eta horien eskumena aurrera eramateko pausoak identifikatzeak lan gutxiago suposatuko du, aldiz, diagnostikorik gabeko eta zailtasun berriak erakusten dizkiguten ikasleak ere izango ditugu, eta hauekin eskumen prozesua luzeagoa izango da.

Esku hartzea normalean 3 fase ezberdinetan banatzen da. Lehenik eta behin, heziketa fasea edo aurre ebaluazioa, hura irakaslearen zailtasunak eta ezaugarriak identifikatzeko momentua da, eta horretarako datuen analisisa atalean eskainitako taula ezberdinak erabiliko dira. Jarraitzeko, aplikazio


fasea edo esku hartzea. Eskuratutako informazio guztia hartu eta praktikara eramaten da. Eta amaitzeko, orokortze fasea, PTak edo tutoreak ikasleari zein neurri edo estrategia erabili daitzazkeen ariketa ezberdinak burutzeko azaldu eta erakutsiko dio.

Atal honetan ematen diren esku hartzearen inguruko adibide eta ezaugarriak orokorrak dira. Egoeraren eta landu nahi den jardueraren arabera egokitzapen bat edo beste egin behar da.

Esku hartzea bisualago ere eskuragarri izateko eskema bat sortu da beheko informazio garrantzitsuenarekin osatuta (6). Beheko argazkian eskemaren bista orokorra.

### 1. Irudia

Esku hartzearen eskemaren bista orokorra.



GBL honetarako sortutako irudia (Aranguren,2023)

### 3.3.1. DIAGNOSTIKO ZEHATZAREKIN AURRERA ERAMATEKO ESKU HARTZEA

Esan bezala, diagnostiko bat dagoenean jarraitu beharreko pausoak edo jarraibideak askoz argiagoak dira.

Ikaslearen diagnostikoa esku tartean izanik, haren eskumena prestatzeko denbora izango dugu proiektua martxan jarri baino lehen, horrela, behin proiektua aurrera eramanda, haren esku hartzea martxan jarriko da eta ikaslea ez da atzean geratuko.

Esku hartzea prestatzeko oso garrantzitsua izango da bere ebaluazio psikopatologikoa behatzea eta ikertzea, haren sintomak eta esku hartze mota zein den ikusteko.

Prozedura hau aurrera eramateko garrantzi handikoa izango da ikaslearen ingurugiroan aritzen diren profesional eta pertsonen arteko komunikazio eta koordinazio etengabea, hala nola, orientatzailea, tutorea edo/eta gurasoak.

PTa, tutorea edo beste edozein irakasgaiko aditua izango da eskumena martxan jarriko duen arduraduna.

### **3.3.2. DIAGNOSTIKORIK GABEKO ESKU HARTZEA**

Ikaslearen inguruko diagnostiko zehatzik esku tartean ez baldin badago, esku hartzea aurrera eramatea zailagoa da. Protokoloak finkatzen dituen ataletan behaketa egin da. Behin datuak aterata ikaslearen inguruan lan egiten duten bestelako profesionalekin elkarlanean aritu esku hartze egokiena zein den eztabaidatzeko.

Kasu honetan, diagnostiko zehatzik ez dagoenean, orientatzailearekin isilpeko diagnostikoa egin daiteke esku hartzea bideratuagoa egon dadin. Datuen analisia egin eta ondorio batera iritsi.

Familia egindako guztiaren gainean egon behar du, haien baimenarik gabe ezin baitaiteke esku hartze berezirik egin.

Atal honetan, informazio ugari eskuratu daiteke diagnostikorik gabeko ikasle bati esku hartzea egin ahal izateko gida bezala erabili daitekeena, beti ere, berriz esanda, orientatzailearekin eta PTarekin hitz egin eta gero.

#### **3.3.1.1. IRAKURKETA ETA IDAZKETAN ERAGITEN DUTEN NAHASMENDUAK**

Irakurketa eta idazketa sendotzeko baliabide ugari eskaini dizkigute urteetan zehar, eta nahiz eta errepikakorrak suertatu, baliagarriak direnekin aurrera abiatu behar da.

Proiektuan zehar gehien landu diren testu motak testu instrumentalak dira. Azken finean, sukaldaritza errezeta egitera abiatzen den lana da, eta horretarako errezetak aztertu, eta bidetik hainbat esperimendu aurrera eramaten dira ere. Baita bete beharreko plantilla ugari ere daude prozesu osoan zehar; erosketara joateko zerrenda, elikagaiekin esperimenduak sortzeko plantilla etab. Testu mota hauek oso egitura sinplea dute, eta alde horretatik oso aberatsgarriak dira ikasle hauekin lantzeko.

Baita, gaiaren mamia atera ahal izateko, bikoteka irakurtzen teknika erabili da, bertan, esan bezala, gaiaren inguruko informazioa eskuratzuz.

Testu guzti hauek modu egokian landu ahal izateko, ikasle guztiei, eta enfasia eginez, irakurketa eta idazketa nahasmenduak edo arazoak dituzten ikasleei, irakurketa estrategiak erakutsi eta praktikan jartzera bideratu behar dira.

Lehenik eta behin, irakurketa prozesua hasten garenean erabili daitezkeen estrategia ezberdinak azaldu behar zaizkio ikasleari; irakurri bitartean apunteak egiten joatea, ideia nagusiak, laburpenak edo/eta eskemak egitea irakurritako informazioa antolatu eta modu bisualean izan ahal izateko, irakasleari edo ikaskideei galderak egitera ohitzea oso lagungarria izan daiteke ere, baina horretarako ikaslea espazio seguru batean sentitu behar da. Bestetik, irakasleak, landu beharreko testua auditiboki ere eskaintzea oso lagungarria izaten da ikaslearentzat. Bide fonologiko-lexikoa uztartzen laguntzen baitio.

Testu instruktiboak (errezeta) adibidetzat hartuta beste behin ere, metodo sintetikoan irakurtzera ohitu behar dira ikasleak, ezaugarri sinpleenetatik konplexuenetara abiatuz. Hasteko, erabili beharreko osagaiak eta material edo tresnak identifikatzen eta ikertzen hasiko dira. Gero, prozedura osoan jarraitu beharreko pauso kopurua eta ideia nagusiak edo hipotesiak aterako dira. Eta amaitzeko, errezeta osoa irakurriko da. Baina behin informazio garrantzitsuena barneraturik izanik, testua bere osotasunean ulertzeak askoz lan errazago suertatuko da.

Esan bezala, presio soziala ekidi beharreko alderdia da. Emozionalki gutxiago sentitzen ohi dira eta horrek, jendeaurrean lan egiterako momentuan frustrazioa eta estresa eragiten du. Horregatik, ikaskideen aurrean egin beharreko lanak oso pentsatuak eta zehatzak izan behar dira. Irakurtzeko zailtasunak dituen ikaslea baldin bada ez behartu testu luzeak irakurtzera, baizik eta, lerro gutxi batzuk. Aldiz, idazketa arazoak dituen ikasle bat baldin bada, arbelean idazteko eskatzen zaionean, data edo hitz gutxi batzuk idaztea bakarrik eskatuko zaio. Geroz eta konfiantza gehiago hartzen duenean eta berarekin hitz egiten den heinean, erronka gehiago proposatuko dira.

Alor emozionalean sartuta, bere egoeraz kontzientzia dagoela transmititu behar zaio, eta bertan laguntzeko irakasleak daudela argi utzi. Haren indarguneak konstanteki azpimarratzeak autoestimua indartu diezaioke eta horrek ere berarengan duen konfiantzan eragina dauka.

Esan bezala, tutoreak edo bestelako irakasleek berarekin kontaktuan egon behar dira, horrek suposatzen du denboraldi tarte batean tutoretzak finkatu behar direla ikasle horrekin. Bere egoera emozionala eta akademikoaz hitz egiteko.

Amaitzeko, ikasleak etxean bere ahulgune horiek indartzeko baliagarriak izan daitezkeen bi webgune aipatuko dira.

TRADISLEXIA→ Tradislexiaren inguruko informazio guztia bideojokoaren erabilera eta jarraibideen eskuliburutik ateratako da.

“Tradislexia bideojokoa ordenagailuaren bidez lagundutako esku-hartze programa bat da, (..) dislexiak defizitarioak diren prozesu kognitiboak lantzeko diseinatu da”.

Hiru dimentsioetan landutako abentura jokoa da. Bertan, ikasleek, programatutako hainbat jarduera burutzen doaz. Kokapen edo eszenario ezberdinak daude jokoa zehar, eta batetik bestera mugitzen doaz. Baita pertsonai ezberdinak ere. Pertsonai hauek ikasleak identifika daitezzen sortuak daude. Pertsonaiei, jokoa zehar, gertakari ezberdinak ematen zaizkie, eta ikaslea, haiekin batera, burutu egin behar ditu. Jarduerak burutzean feedback-a ematen zaie ikasleei. Feedback-a indargarri positiboa edo zuzenketa moduan ematen da, jardueraren garapenaren arabera.

Jokoak, espazioak eta jarduerak antolatzeaz gain, esan bezala, feedback-a ematen die ikasleei. Horrela, estimulatzeko den ezagutza sendotzen da.

San Frantzisko eskolako sukaldaritza proiektura bideratutako protokoloa

Zuzenketa horri esker eta burutatuko jardueren erregistroa gordeta, ikaslearen jarraipena eta aurrerapena gordeta gelditzen da.

PIRULETRAS→ Dohainik eskuratu daitekeen aplikazioa da, 5.000 jarduera baino gehiago eskaintzen dituen, erdia erderaz, beste erdia ingelesez. Sukaldaritza proiektuaren lantze hizkuntzak euskara, ingelesa eta gaztelania direnez, erabilgarria izan daiteke bi hizkuntz horien inguruko lanketa egiteko. Jarduera egitura ezberdinak ematen dira, guztiak hitz baten inguruan lantzekoak. Hizki bat kendu, hizki bat gehitu eta aurrizki zein atzizkiak landu.

Jarduerak ez ezik, irakaskuntza prozesuaren garapenaren grafikoak eskaintzen ditu, maila ezberdinak eta pertsonaia eraldatzeko aukera, ikaslea eroso sentitu dadin.

### 3.3.1.2. AUTISMO ESPEKTROKO NAHASMENA

Esan bezala, autismoa jasaten duten ikasleen ezaugarriak oso ezberdinak izan daitezke adin eta haurrak jasotako esperientzien arabera. Horregatik, esku hartze egokia aurrera eraman ahal izateko, *Education of Persons With Autism Spectrum Disorders* artikuluan, aholkuen atalean jartzen duen moduan, oso garrantzitsua da ikaslearen profila eta bere familiarena zorrotzasunez aztertzea, haren ordutegiak eta hezkuntza ingurunea, bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo eta beraren ezaugarriak kontuan izanda esku hartze indibidualizatu bat sortzea eta aurrera eramatea.

Proiektua taldeka burutu da, eta esan bezala, AEN duten ikasleek interkazio sozialetan zailtasunak izan ditzazkete, frustrazioa eta inpotentziara iritsiz. Horregatik taldean lan egitea erronka bat suposa dezake beraientzat.

Aurreko lerroetan esan bezala, sendotu nahi da ikasle bakoitzak ezaugarri ezberdinak dituela eta ume batentzat egokia izan daitekeena beste batentzat agian ez, horregatik, neurriak hartu baino lehen ikaslearen egoerari erreparatu behar zaio, baina gomendagarriena da talde lanetan heldu bat aldioro berarekin egotea da. Bere talde giroan tutore, espezialista edo kanpotik etorritako beste helduren bat beraiekin egotea. Familiaren laguntza oso aberatsagarria da beraientzat, beraz, noizean behin bere familiako kide bat gerturatu daiteke eskolara berarekin eta bere taldearekin jardueraren bat aurrera eramateko.

Proiektua aurrera eramaten den heinean, eskolatik kanpo jarduerak burutu dira, hala nola, Iruñerriko Alde Zaharrera irtetea esperimenduak eta errezetak egiteko beharrezko materialak eta osagaiak erosteko. Oso erronka sendoa da beraientzat haien gune segurutik irtetea, eta horretarako bere ingurugiroa prest egon behar da. Ateraldi hauetan beharrezko da heldu bat berarekin joatea.



Behar izanez gero, sukaldaritzaren inguruko hiztegia barneratu ahal izateko eta bere burua ahalik eta integratuena sentiarazteko, piktogramak(3) erabili daitezke.

Curriculum egokitzapen inidbiduala egin behar izatekotan, ahalik eta banakako egokitzapen gutxien egitea da xedea.

### 3.3.1.3 ARRETA GABEZIA EDO/ETA HIPERAKTIBITATEA

Nahasmendu honek bai irakurketa eta idazketa prozesuetan bai jokabidean eragina izan dezake. Irakurketa eta idazketa alorretan izan ditzazkeen oztopoei aurre egiteko esku hartzea 3.3.1.1 atalean aurkitzen da. Atal honetan gehienbat jarrerari dagokiona ematen da.

Este trastorno puede afectar tanto en la lectura, como en la escritura o el comportamiento. Para las dificultades que se puedan presentar en los procesos de lecto-escritura puede acudir al apartado 3.3.1.1. donde encontrará la intervención que se debe llevar a cabo.

En este apartado se trata cómo manejar situaciones que afectan directamente al comportamiento.

GELAN: Arreta denbora luzez mantentzeko zailtasunak dituzten haurrak dira, horregatik batik bat, gelan edo bere ingurugiroan dauden distraigarriak murriztea da helburu nagusia. Proiektuan zehar zaila da distraigarriak ez egotea, izan ere, estimulu ugari aktibatzen dituen STEAM proiektua da, eta horrek haurrak haien ehuneko ehunean ipintzen ditu, hala ere, haren arreta momentu eta egoera egokietan mantentzen laguntzea da erronka nagusia. Poliki eta garbi eman behar zaizkio beharrezko aginteak.

Asko laguntzen du saio baten atarian landu beharrekoa modu eskematiko batean eskaintzea. Bere ideiak antolatzeke eta etorkizun motzera egin beharrekoa planifikatzen laguntzen dio. Kasu honetan, proiektu zabala denez, irakasgai asko ukitzen baitira, eta gela ugarietatik pasatzen denez; bai ikasnovak, bai laborategiak, arte txokoa eta ohiko gelak, proposatzen da gela edo espazio bakoitzean landu beharreko ariketak zeintzuk izango diren eskema bat ematea da. Jarduera ugari lantzen dira proiektu osoan zehar eta infromazio guztia behin emateak ez dio zertan mesederik egingo, beraz, asteoro, landuko denaren eskema ematea da aberatsgarriena.

Esan bezala, ikasgela ezberdinetatik igarotzen den proiektua da, eta horrek mugimendua eskatzen du. Mugimendu tarte horiek eskaini behar zaizkio, eta ahal izatekotan, beste batzuk eskaini ere. Mugitzeko beharra dute, eta geroz eta gutxiago mugitu, antsietatea handitzen joaten zaie. Horregatik, atezaintzara jaistea, beste maila batera jaistea etab. eskatzen duten mesedeak berari eskatu behar zaizkio.

## San Frantzisko eskolako sukaldaritza proiektura bideratutako protokoloa

EN CLASE: Son alumnos con dificultades para focalizar la atención en un mismo sitio durante un tiempo prolongado, por ello, el primer objetivo es reducir las posibles distracciones que pueda tener alrededor. Es una tarea difícil, ya que estamos hablando de un proyecto STEAM lleno de estímulos para el alumnado, de todos modos, de eso se tratan los retos, y por eso hay que tratar de focalizar su atención en los momentos adecuados. Las indicaciones necesarias hay que darlas de manera clara y limpia.

Puede ser de gran ayuda facilitarles un esquema de lo que se va a trabajar en cada sesión para que puedan organizarse las ideas. En este caso, al ser un proyecto muy amplio, tanto de materias como de aulas, se recomienda que en cada aula o espacio se le indique las actividades que se llevarán a cabo en ese lugar. Siguiendo con los esquemas informativos, otro consejo es que al ser un proyecto de duración prolongada, se le indique poco a poco el planteamiento de actividades, es decir, cada semana o cada dos semanas darle el esquema del que hemos hablado anteriormente.

Como hemos mencionado, es un proyecto que ocupa muchas aulas del centro, lo que conlleva movimiento. Es necesario brindarle ese tiempo de movimiento al alumno, para poder soltar esa ansiedad que pueda causarle el estar en el mismo sitio durante un largo tiempo. Por eso, contar con su ayuda para los recados que haya que hacer por el centro puede ser una gran idea.

TUTORETZAK: Beraren prozesua eta egoera nolakoa den ikusteko tutoretzak egin behar dira. Proiektua hasi baino lehen berarekin topaketa bat hitzartuko da eta bertan arauak eta mugak finkatuko dira tutore eta ikaslearen artean. Aipatu dudan moduan estimulu ugariko lana da eta aztoratzeko probabilitatea oso handia da. Lanaren erdialdera este elkarrizketa bat finkatuko da. Emandako egoeren inguruan hausnartzeko eta bere ekintzen ondorio negatibo zein positiboak ateratzeko unea. Errieta botatzeko momentua ere hau izango da, ikaskiderik gabeko espazioan, baina hala ere, indargarri positiboak emateak garrantzi handiagoa du. Haren autoestimuan eragin positiboa sortzen du honek eta horrek lan egiten jarraitzeari motibatzen du.

Egindako hainbat ekintzei ez zaie gehiegizko arretarik eskini behar, baina kontuz ibili behar da, tolerantzia eta disziplinaren oreka bilatuz. Zalantzarik izatekotan, orientatzailearekin hitzaldiak adostu daitezke eta bien artean egoeren inguruan hausnartu eta norainoko limiteak onartuko diren adostu.

TUTORÍAS: Para poder valorar todo su proceso es recomendable hacer tutorías. Antes de comenzar el proyecto y ponerse en marcha con las demás clases se cerrará una tutoría donde se establecerán las normas entre el tutor y el alumno. Como he comentado anteriormente es un trabajo muy estimulativo, lo que puede conllevar que el alumno se altere en exceso. A mediados del proceso se cerrará otra tutoría para reflexionar sobre las actitudes del alumno, tanto las negativas como las

positivas. El refuerzo positivo que se empleará en esta tutoría es de gran valor, ya que puede ser una dosis de motivación para el alumno. No obstante, de haber habido alguna conducta negativa en lo que se lleva de proceso, será el momento de hablar sobre ello.

Es cierto que a algunas actitudes del alumno habrá que restarles importancia, pero hay que saber conseguir un balance entre la tolerancia y la disciplina.

Amaitzeko, inpultsibitatea eta autoerregulazioa lantzeko, gomendagarria da saioen bukaeran, edo saio batzuen bukaeran, estimulu gehien dituzten saioen amaieran adibidez, erlaxazio dinamikak lantzea.

Jarraian adibide batzuk eskaintzen dira:

STOP JOLASA→ Borobil bat sortuko dute eta ikasle bat erdialdean ipiniko da. Erdian dagoen ikasle hura txaloak ematen hasiko da eta ingurukoak baloia pasa beharko dute, eskutik eskura, txaloen erritmora. Txaloak entzuteari uzten denean, baloia eskuan duenak erdialdera pasako da. AFN-Haren ezaugarriak dituen ikaslea izan daiteke jolasari hasiera eman dakioken ikaslea, horrela ere arreta landuko da eskuen koordinazioaz baliatuta.

ARGAZKIA→ Honen helburua epe motzeko memoria lantzea da. Izan ere, ezberdintasunak identifikatzean datza. Ikasle batek argazkilariaren rola hartuko du eta gainerako ikaskideen aurrean jarriko da. Gainerakoak paratu egingo dira argazki bat izango balitz ikusaraziz. Denbora labur batean argazkilaria gelatik aterako da edo buelta emango du ezer ikusteko helburuarekin. Momentu horretan ikaskideak argazkian adaketaren bat egin beharko dute. Zein da helburua? Argazkilaria ohartu behar dela emandako aldaketaz.

ORKESTRA ZUZENDARIA→ Borbil bat sortuko dute honetan ere, harrapakaria izan ezik, bera gelatik irtetengo da momentu labur batez. Barnean daudenak orkestra zuzendari bat izendatuko dute. Beraren zeregina, izenak dioen moduan, orkestra gidatzea izango da. Keinuak, soinuak etab. eginez gainerakoek jarraitu beharko diote. Momentuoro keinuz aldatzen joan beharko da eta besteek jarraitzaileak direnez, berdin. Arriskua hemen harrapatzaileak ez ikustea izango da. Beraz, kontu handiarekin egin behar dira aldaketak. Harrapakariak zuzendaria identifikatzen badu, harrapakari bilakatzen da.

#### 3.3.1.4 DESGAITASUN FISIKOA

Aurreko atalean aipatzen den moduan, ikasle hauek jasaten duten tentsio muskularra landu behar da. Horretarako, astean saioen bat egokitu daiteke ikasle honekin erlaxazio muskularra lantzeko. Bai PTaren, fisioterapeuta baten edo laguntzailearen menpe egon daiteke. Haren helburua ikaslearen gidari izatea izango baita, eta behar izatekotan, mugimenduak aurrera eramateko laguntzaile.

Arabako Foru Aldundiak haren webgunean Jacobson erlaxazio teknikaren inguruan eskaintzen dituen aholku eta pausoei arreta eskainiko zaie.

Jacobson teknika erlaxazio muskularraren bitartez estresa lantzeko teknika da.

Ikaslea, ahal izatekotan aulki batean, edo lurrean, pareta baten kontra eseriko da. Bi arnasketa prozesu oso burutuko dira eta giharren lanketari ekingo da.

Funtzionamendua honakoa da: giharrak, aldizka, erlaxatu eta uzurtu egin behar dira. Lanketa honek, luzera, ahozko komunikazioan, zein idatzizkoan ere aurrerapenak ekar ditzazke. Teknika honetan gihar eta artikulazio guztiak lantzen dira, baina bakarrik ikaslearentzat irisgarriak direnak burutu behar dira. Jarraian, adibide batzuk agertuko dira, baina askoz mugimendu gehiago daude. (Behar izatekotan arduraduna den irakaslea, ikaslea mugimenduekin lagundu beharko du).

- Eskuak: behatzak luzatu eta tolestu.
- Lepoa: Mugitu burua eskuinera. Erdira. Gero ezkerrera.
- Lepoa: Burua aurrera, gero atzera.
- Ahoa: ahora irekita mihia ahalik eta gehien atera. Ahoan sartzean eztarrirantz bideratu ahal den neurrian.

Tentsionamendu bakoitzak 10 segundoko iraupena izan behar du, erlaxamenduak 10-15. Giharrekin lanean ari garenez, orientatzailearekin kontsultatu beharra dago. Medikutik etorritako informeren bat dagoen ala ez ikusteko. Askotan giharrak gogortzen baitzaizkie, eta horrek kalteak ekar ditzazke.

Beraz, informe medikurik ez izatekotan, komenigarria da haren medikuarekin kontaktuan jartzea egoeraren inguruan hitz egiteko.

Oztopo arkitektonikoei dagokienez eskola nahiko ongi egokituta dago. Proiektua goiko solairuan burutzen da eta bertara iristeko igogailua dago. Gela batetik bestera mugitzeko dauden pasabideak ere gurpildun aulki bat pasatzeko lekua dute, nahiz eta pixka bat estuak izan. Pasabideetan txukuntasuna mantentzea ezinbestekoa da, berokirik eta motxilarik lurrean ez. Gurpildun aulkian mugitu beharreko ikasleren bat eskolan sartzen denean, lurak begiratu eta egondako kalteak konpondu beharko dira.

Aipatutako moduan, 4 gela ezberdinetatik igarotzen dira ikasleak proiektuan zehar, eta gela bakoitzean berarentzat egokituako espazioa, mahaia, egon behar da.

Sukaldean lagundu ahal izateko hedagarri bat ipini. Bertan gauzak pisatu, irabiatu eta berak egin ditzazkeen lanak aurrera eramanez ahal izateko.

Arte txokoan zein laborategian dauden mahaiak altuak izan daitezke gurrildun aulkian dagoen ikasle batentzat, hortaz, mahaiaren beste hedagarria ipini edo berarentzat egokia den edo mahaira iristeko baliatzen den aulki bat eman.

Ikasnovak gela, aldiz, guztientzat aproposa eta irisgarria den gela da. Espazio handikoa eta mota askotariko mahaiak, aulkiak eta kuxinak eskainiz.

Egin beharreko irteeretan, merkatura adibidez, ikaslearentzat bide irisgarria dagoelaz ziurtatu bertara gerturatu baino lehen. Bestela beste alternatiba bat bilatu behar da. Ezin daiteke ikaslea ateraldirik gabe utzi gelako beste ikaskideekin.

Proiektuan parte hartzen duten irakasleek garun paralisiaz eta desgaitasun fisikoaren inguruan formakuntza bat jasotzea beharrezkoa da.

Familiarekin elkarlanean aritzea proiektua burutzen ari den bitartean ezinbestekoa da. Gelan landutakoa etxean birpasatzea komenigarria baita. Zenbait lanketa ere eskolan eman aurretik etxean mamitu behar dira. Horretarako, familiei orientabideak eman behar zaizkie, beraz, proiektua martxan jarri baino lehen hitzaldi bat adostea oso gomendagarria da. Ikasleak izan ditzazkeen zailtasun eta indarguneak baloratzeko eta horiei erantzuna emateko.

Familiak eskolari eskainitako informazioa, bai medikoa, bai pertsonala behatzea ezinbestekoa da.

Curriculum egokitzapen indibiduala egin behar izatekotan, ahalik eta egokitzapen indibidual gutxien egitea da helburua, normalizazio printzipioa jarraituz.

Komunikazioa garrantzi handiko eremua da proiektu honetan aurrera egin ahal izateko, horregatik, hizkuntza oso kaltetuta duten ikasleekin Komunikazio Sistema Gehigarri eta Alternatiboak erabili daitezke, hala nola, keinuak, argazkiak, piktogramak(3) etab.

Motibatzaileak erabiltzeak ere asko laguntzen du ikasleen errendimendu eta arreta etekin handiena ateratzeko. Hortaz, haren atseginezko gauzak eta indargarri positiboaren antzerako formulak erabili behar dira.

Seguraski, ikaskideen irakaskuntza erritmoa jarraitzea oso zaila izango da, beraz, haren erritmoa errespetatzea ezinbestekoa da. Honek eskatzen du gelan irakasle bat baino gehiago egoteak.

### 3.3.1.5. IKUSMEN DESGAITASUNA

Ikusmen desgaitasuna duten ikasleek, esan bezala, ez dute adimenean zertan kalterik izan behar. Haien ezaugarri nabarmenena informazioa eskuratzeko kanal garrantzitsu bat kaltetuta dutela da. Horregatik, inguruko informazioa eskuratzeko gainerako zentzumenak estimulatzea oso garrantzitsua

da, eta proiektu honek dituen horrenbesteko estimulatuak oso aberatsgarriak izan daitezke ikasle honentzat egoki erabiltzen badira.

Lehenik eta behin, ikastetxeari begirada bat emanaz, oztopo arkitektonikoak dira lehenengo ezabatu behar direnak.

Pasabideetan normalean egon ohi diren motxilak eta berokiak lurrean ez egoten saiatu behar da. Lurretik gertu ahalik eta altzairu eta apaingarri gutxien egotea beharrezkoa da, batez ere ikaslea makilarekin mugitzen bada eskolatik zehar.


Ikaslea mugituko den geletan, identifikazio txartelak atean jarri behar dira, braillez (4). Ordenagailuz ateratako Braille idazkiak eskaintzen dira 4.eranskinean baina pertsona batek transkripzioa egin baldin badezake, askoz hobe. Batez ere, testuak transkribitzaerako momentuan. Ordenagailuek Braille idazkia egin dezakete, baina luzera handiko testuak giza baliabide batek egitea aproposagoa da. Hala ere, ordenagailuz egiteko aukera bakarrik izatekotan, ONCE erakundeak Ebrai deituriko Braille editorea sortu du. Honek testu, marrazki eta grafikoen erliebea aztertu eta eta beharrezkoak ez diren ezaugarriak ezabatzen ditu, irakurketa edo interpretazioa errazagoa izan dadin. Gainera, hartzailearen adina ere kontuan har daiteke kolore eta ehundura ezberdinak sartzeko. Ebrai programa dohainik, edonoren eskura dago eskaera eginez CTI-ra (Centro de Tifotecnología e Innovación).

Gela bakoitzaren transkripzioa egin den modu berean, gela bakoitzaren deskribapen txiki bat egin eta Braillera transkribitza komenigarria da. Ikasleak ikus ezin duen espazioaren irudia sortu ahal izateko (5).

Transkripzio guztiak traductorbraille.com webgunetik ateratak dira. Eta bertatik ere hurrengo informazio erabilgarria eskuratzen da.

## 2. Irudia


*Braillez alfabetoa.*



Traductorbraille.com webgunetik eskuratutako irudia. Braillez idazteko beharrezko den oinarriko jakintza.

### 3. Irudia

Zenbakiak Braillez.



Traductorbraille.com webgunetik eskuratutako irudia.

Braille sistema alternatiboa alde batera utzirik, testuak barneratu ahal izateko beste baliabidea auditiboki eskaintzea da. Horretarako baliabide ugariak daude, aurrerago azalduko direnak.

Proiektu honetan estimulazioa ugaria da, eta ikusmen urritasuna duten ikasleei gainerako zentzumenak estimulatzea bere garrantzia dauka. Horregatik, aurkitu daitezkeen sentsazio guztietaz baliatu behar da. Sukaldaritzan ukimena eta usaimena bereziki estimulatu daitezke. Bai masak oratzen, hirina ukitzean, ehundura ezberdinak ukitzean, janari eta espezia ezberdinen usainak perzibitzean etab. Arte tailerrean ere eskuekin asko jolastu daiteke; errotulagailuekin beharrean eskuekin margotuz, koloreak eta margoak erabili beharrean janaria erabiliz; arroza, dilistak, pasta etab. Ikasnovan aldiz, entzumena lantzeko gunea da. Aurkezpenak, audioak etab. martxan jartzeko espazioa baita.

Detale guztiak kontuan hartu behar dira horrelako profila duen ikasle batekin lanean egoteko momentuan.

Gaur egun, ikusmen desgaitasuna duten pertsonekin tifoteknologia erabiltzen hasi dira. Tifoteknologiaren inguruan pixka bat jakiteko Pilar Zamorak bere *Tifotecnologías para el alumnado con discapacidad visual* artikuluan idatzitakoa ikertu da.

Aztertu duen moduan, material tifoteknologikoa ikusmen desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala errazteko eta gizarteratzeko zerbitzua garatzeko funtsezko laguntza da. Baliabide nagusiak bost multzotan sailkatzen dira.

Lehenengo multzoan audio deskribapen laguntzak sartzen dira. "AUDESC" deituriko sistema bati esker bideo bat ikusteko unean, bertan gertatutako kontatzen duen ahotsa eskaintzen du.

Bigarren taldean erliebedun baliabideak eta Braille sistema aurki daitezke. Talde honen barruan Perkins makinaren inguruan hitz egin daiteke. Braillez idaztea ahalbidetzen duen makina mekanikoa

San Frantzisko eskolako sukaldaritza proiektura bideratutako protokoloa

da. Bederatzi tekla osaturik dago. Gainera, makina honek beste sistema elektronikoa du, Braille-n-print deiturikoa. Honek Braillez idatzitako testu bat tintara pasatzea ahalbidetzen du.

Hirugarren multzokatzean jolas eta kirolearako material tifoteknologikoa aurkitu daiteke. Honen xedea entretenimendurako material egokitua eskaintzea da, hala nola, xake taula egokituak. Taula hauek beltzez margotutako lauki erliebedunak izaten ditu eta horrela txuri eta beltzen arteko ezberdintasuna detekta dezakete.

Laugarren multzoan egunerokotasunean erabiltzeko baliabideak daude, hala nola, makulua, funtsezkoa den baliabidea haien autonomia izateko.

Azkenik, bostgarren atalean, IKTak daude, irakaskuntza prozesuan asko lagundu dezaketenak. Adibidez, Jaws irakurketa programa edo Supernova. Bi ordenagailu programa hauek pantaila irakurtzeaz arduratzen dira, dokumentuak editatzeko eta ordenagailu bitartez jardueraz burutzeko ezinbestekoa dena. Baita Braille inprimagailuak ere sartzen dira multzo honen barnean.

Baliabide guzti hauetaz baliatu daiteke proiektu honen garapena aurrera eramateko.

Esku hartzearekin amaitzeko, aurreko ataletan aipatu den moduan, merkatura irteera egitea programatzen da. Ikasle honen egoera kontuan izan behar da behar diren baliabideak eskuratzeko, batik bat, berarekin joango den laguntzaile edo bolondresen bat. Bidea oztopoz beterik ala ez dagoen ziurtatzea eta beste alternatibak pentsatzea.

#### 3.3.1.6. ENTZUMEN DESGAITASUNA

“Ikasle horien garapen kognitibo, sozial, afektibo eta komunikatiboa izango da hizkuntza behar bezala errehabilitatzeko jarraitu behar den gida” (Pulgar,2018).

Horregatik, irakasleen lehenengo betebeharra ikaslearen inguruko ezaugarriak zeintzuk diren eta behin egoera argi izanda horren inguruko informazioa bilatzea izango da, eman beharreko laguntza ahalik eta kalitaterik onenekoia izan dadin.

Lehen aipatutako Andaluziako batzarrak argitaratutako eskuliburutik hartutako hainbat orientabide metodologiko eskaintzen dira, hala ere, ezaugarri orokorrak dira, eta baliteke egokitzapen hauek ikasle guztientzat baliagarriak ez izatea.

Ikasle ugari elkartuko dira gela berean proiektua burutzen den heinean, baina soinu eremua zaintzen saiatu behar da, inguruneko zarata murriztuz. Ikasgelaren argiztapena egokia izateko hitz egiten duen



pertsonaren eremua argiztatuta egon behar da, horrela, ikasleak, ezpainak irakurtzeko erraztasuna izan dezan.

Landu beharreko testuak egokitzea ere beharrezkoa da, horrela, haren ulermena irisgarriagoa izan dadin. Horretarako, hizkuntza sinplea eta sinonimoak aplikatu daitezke. Hizkuntzaren ulermenarekin jarraituz, gaia lantzen hasi baino lehen, haren inguruko hiztegia ikaslearekin lantzea aproposa izan daiteke. Zeregin hau, behin familiarekin hitz eginda, etxean burutu daiteke, etxeko kideen laguntzarekin. Horrela, ikastetxera iristean gaitegiaren inguruko jakintza izango du eta ulermena eta klasearen jarraipena izatea arinagoa izango da.

Entzumen kanala murrizta denez, informazioa jasotzeko beste bideak erabili behar dira, hala nola bisuala edo ukimenezkoa. Horretarako, piktogramak, eskemak edo mapa kontzeptualak erabili daitezke.

Curriculum egokitzapena egin beharreko sailetan Pedagogia Terapeutikoko irakaslearen laguntza beharrezkoa izango da.

### **3.4. ESKU-HARTZEAREN EBALUAZIOA**

Behin prozesu osoa aurrera eramanda, ebaluazioa egitea zatirik garrantzitsuena da. Ebaluazioa eginez ikus daiteke zeintzuk izan dira ahulgune eta indarguneak, bai tutoreenak, bai protokoloarenak. Ebaluazioa berritzeko baliabidea da, ondorioak ateratzeko eta bakoitzak bere buruaz hausnarketa egiteko tresna, geroz eta hezkuntza kalitaterik hoberena eskaintzeko.

Nahiz eta sukaldaritzaren proiektura bideratutako protokoloa izan, esku hartzearen proiektutik kanpo ere erabili daitezkeen baliabideak eskaini dira, eta horien funtzionamenduaren gaineko balorazioa egitea ere eskatzen da.

#### **3.4.1 IKASLEAREN EBALUAZIOA**

Ikaslearen prozesuaren ebaluazioa egin ahala izateko, hasierako profila eta esku hartzea egin eta ondorengoko profila hartu behar dira. Ondorioztatu ondorio positiborik izan duen protokoloa martxan jartzeak bere irakaskuntza prozesurako eta aurrerapenik egon den ala ez baloratzea.

Baliteke aldaketa handirik ez bistaratzea, baina baloratu beharrezkoa, batez ere, proiektua aurrera eramateko zailtasunik izan duen ala ez ikustea da, behin protokoloa martxan jarrita.

Behin egokitzapenak eginda eta berari dagozkion baliabideak eta pautak aurrera eramanda erreztasunik izan duen eta erosotasunez parte hartu duen proiektuan zehar.

Balorazioa egitea errazago izan dadin eta erantzunak niri emateko, formatu digitalean ere eskaintzen da beheko tauletan agertutako galdetegia (7).

Balorazioa 1etik 3ra izango da; (1) ez da bete, (2) hobetzeko eta (3) bete da.

## 6. Taula

Ikaslearen ebaluazioa burutzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1	2	3
Hasieran ikaslearen egoera ezezaguna zen			
Ikaslea ongi egokitu da prestatutako egokitzapenera			
Ikaslea ez da baztertuta sentitu egokitzapenen ondorioz			
Emozionalki konstante mantendu da proiektu osoan zehar			
Proiektuan bat egin du haren taldekideekin			
Jarduera guztiak burutzeko gai izan da			
Ikaslearen jarraipena tutoretzen bitartez eramateko aukera egon da			

GBL honetarako ekoiztutako taula (Aranguren, 2023)

### 3.4.2 PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA

Protokoloa proiektu berri honetan aurrera eramateko diseinatutakoa da, hortaz, proiektuan parte hartu duten eta protokoloaz baliatu behar izan diren irakasleen balorazioa egitea eskertzen da.

Protokoloa orokorra da, ez da kasu zehatz batean enfokatu, beraz, proposatutako egokitzapenak moldatu daitezke behar izatekotan. Horregatik, balorazioa ere orokorra da.

Balorazioa 1etik 3ra izango da; (1) ez, (2) batzuetan eta (3) bai.

## 7. Taula

Protokoloa ebaluatzeko taula.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1	2	3
Irakasle bezala eroso sentitu naiz protokoloa aurrera eramanda			
Ikaslearen ezaugarriak edo sintomak identifikatu dira			
Ezaugarriak identifikatuta nahasmenduarekin bat egiteko baliabide gisa izan da			
Ikaslearen beharrak identifikatzeko lagungarria izan da			
Ikaslearen patologia detektatzeko baliagarria izan da			
Esku hartzea aplikatu da			
Esku hartzea aplikatu eta gero aurrerapenak ikusi dira			

---

Esku hartzea proiektura egokitu da

---

Eskaintako baliabideak erabilgarriak izan dira

---

Familiak aktiboki parte hartu du prozesu osoan zehar

---

GBL honetarako ekoiztutako taula (Aranguren,2023)

## ONDORIOAK

Protokoloa burutzen ari nintzen bitartean konturatu nintzen uste baino askoz zailagoa dela ikasle bati haren beharretara egokitu beharreko eskumena egitea, nahiz eta baliabide edo tresnarik hoberenak izan. Esku hartzea prestatu baino lehen ikaslearen profila, haren ingurugiroaren kalitatea, kanpoan zein barnean dituen laguntzak etab. aztertu behar dira, baina askotan ez da nahikoa izaten ere.

Hasieratik nire helburua irakasleentzat lagungarria izan zitekeen protokolo bat sortzea zen, beti ere San Frantzisko eskolak eskaini zidan proiektuari egokituta, baina lana aurrera zihoan heinean konturatzen nintzen oso zaila dela indibidualizatua den eskumena prestatzea ikasle profil bakoitzerako. Izan ere, nire helbururaren barnean ikasleak haren irakaskuntza prozesuaren jabe izatea momentuoro zegoen, eta horrekin lortu nahi nuena ikasleak ahalik eta egokitzapen gutxien burutu behar izatea, hau da, ingurugiroa bere egoerari moldatzea berarengan eskusio sentimendurik sortarazi gabe.

Hala ere, STEAM metodologiak ateak izugarri irekitzen dizkio inklusioari, izan ere, disziplinarreko jarduerak burutzean eta irakasgai asko proiektu baten barnean sartzean ikasle hauei eginkizun ugari eskaini ahal dizkiegu, hau da, proiektu hauek aukera-sorta izugarria dira ikasle aniztasun ugariarekin lan egin ahal izateko. Gainera, estimulazioa handia dago zentzumen guztiei begira eta irakaskuntzan landu beharreko alor guztiak lantzen dira, bai matematika, zientziak, irakurketa, idazketa, artea ere lantzen da eta horrek aberastasun handia ematen die ikasleei.

Behin ikusita metodologia honek nola funtzionatzen duen, ekartzen dituen onurak, inklusibitateari bultzada ematen diola eta esku hartzea egiteko aukera-sorta ugari daudela, horrelako beste hainbat proiektu aurrera eramatea porposatuko nuke. Baliteke metodologia berri hau inklusioari bultzada handia emateko giltza izatea? Frogatzea da geratzen zaiguna!

A medida que iba llevando a cabo el protocolo, me daba cuenta de que adaptar una intervención a las necesidades de cada alumno es más difícil de lo que parece, a pesar de contar con las mejores herramientas. Antes de preparar la intervención hay que analizar el perfil del alumno, la calidad de su entorno, las ayudas con las que cuenta tanto dentro como fuera del centro etc.

Desde un principio mi objetivo era crear un protocolo que pudiera servir de ayuda a los y las profesoras, eso sí, adaptado al proyecto en el que el colegio San Francisco me dejó participar, pero cuanto más avanzaba más cuenta me daba de lo complicado que es poder personalizar una intervención. Parte de mi objetivo era que los y las alumnas fuesen los dueños de su proceso de aprendizaje en todo momento, por ello quería conseguir que la intervención que se llevará a cabo tuviera la menor cantidad de adaptaciones posibles en cuanto al alumno, si no que el entorno fuese

lo que se debiera adaptar para que el alumno pudiera llevar a cabo el trabajo mencionado sin la mínima sensación de exclusión.

De todos modos, el trabajar con metodologías STEAM ayuda mucho a la inclusión, dado que trabajando con actividades interdisciplinarias se tocan muchas materias y esto favorece a la cantidad de actividades que se le pueden proporcionar al alumno en cuestión. Es decir, este tipo de proyectos son un abanico de oportunidades para trabajar con mucha diversidad de alumnos. Además se estimula todo tipo de sensaciones a la vez que se trabajan las matemáticas, ciencias, lecto-escritura y arte y eso les da mucha riqueza a los y las alumnas.

Una vez visto cómo funciona este tipo de metodologías y los beneficios que conlleva consigo mismo, creo que se le puede dar un empujón a la inclusión con este tipo de proyectos, a la misma vez que se puede intervenir a las necesidades de un alumno de una forma mucho más variada, por ello creo que sería muy buena ayuda impulsar este tipo de proyectos con los alumnos en los centros escolares. ¿Será esta la llave que abra definitivamente la puerta de la inclusión?

## BIBLIOGRAFIA

- Aguilar, J.L., Alonso, M., Arriaza, J.C., Brea, M., Cairón, M.I., Camacho, C., Conde, M.I., Fontiveros, M.I., Galán, P., García, F.J., García, M.R., Guerrero, L., Herrero, J.,[...] Sánchez, J.J. (s,f). *Manual de atención al alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo derivadas de discapacidad auditiva*. Consejería de educación, Junta de Andalucía.
- Andueza, O. y Aranguren, O. (2022). *I.Arazoak identifikatzen eta zehazten ikastea. Esku hartze plana*. [Apuntes de clase]. [Arazoak identifikatzen apunteak](#)
- Andueza, O., Aranguren, O., Azpeitia, I., Barroso, M., Bello, I., Etxeandia, A., Garmendia, A., Goikoetxea, I., Gonzalez, S., Granizo, I., Igoa, A., Jabalera, M., Navarro, H., Percas J., Rodriguez, J., Yoller, M. y Zunzarren, O. (2023). *Behar Psikologikoak eskolan. Esku hartze protokoloa*. Udako Euskal Unibertistatea.
- Aranguren, Oihane. (2021). *Autismo Espektroko Nahasmena*. [Apuntes de clase]. [Autismoa apunteak](#)
- Aranguren, Oihane. (2021). *Ikasteko aparteko zailtasunak*. [Apuntes de clase]. [Ikasteko aparteko zailtasunak apunteak](#)
- Aranguren, Oihane. (2021). *Desgaitasun fisikoa duten ikasleentzako hezkuntza erantzuna*. [Apuntes de clase]. [Desgaitasun fisikoa apunteak](#)
- Aranguren, Oihane. (2021). *Ikusmen desgaitasuna*. [Apuntes de clase]. [Ikusmen desgaitasuna apunteak](#)
- Aranguren, Oihane. (2021). *Arreta Gabezia*. [Apuntes de clase]. [Arreta gabezia apunteak](#)
- Arroki, I., Kanpo, K., Velazquez, J. y Zalba, I. (2022). *Albert Ellis*. [Apuntes de clase]. [Albert Ellis apunteak](#)
- Atencia, A. E., Correa, R. A., y Mendoza, Z. M. (2021). Dislexia: Revisión de manifestaciones sintomatológicas y signos en etapas escolares. *Tempus Psicológico*, 4(2). <https://doi.org/10.30554/tempuspsi.4.2.3377.2021>
- Bona, C. (2021). *Humanizar la educación: La vida nos está dando una oportunidad para repensar la educación*. PLAZA & JANÉS.
- Calidad de la Atención en los Servicios Sociales. (s.f.). *Reconocer y responder a las necesidades emocionales del personal de apoyo*. [Sitio web]. [Personas con discapacidad - Estrategias Reactivas \(ifbscalidad.eus\)](#)
- ¿Cómo se transcribe un texto a braille? (2023). ONCE. <https://www.once.es/servicios-sociales/tecnologiayrecursosadaptados/servicio-bibliografico/como-se-transcribe-un-texto-a-braille>
- Council of Administration of Autism Europe aisbl. (s.f.). *Education of persons with autism spectrum disorders. Recommendations of autism-europe aisbl*. Autism Europe AISBL. [aerecommendationsautismeduc.pdf \(autismeurope.org\)](#)

- Dávila Grijalva, M.E. (2022). *El discurso de la inclusión en el aula* [Maestría en Investigación en Educación, Universidad Andina Simón Bolívar, Sede Ecuador ].
- Didáctica del sistema braille.* (s. f.). Educación Inclusiva. Personas con Discapacidad Visual. [http://www.riate.org/version/v1/materiales\\_en\\_prueba/e\\_inclusiva\\_discapacidad/unidad\\_5/m5\\_escritura\\_sist\\_braille.htm](http://www.riate.org/version/v1/materiales_en_prueba/e_inclusiva_discapacidad/unidad_5/m5_escritura_sist_braille.htm)
- España, Ministerio de Educación y Formación Profesional. (2022). Real Decreto 157/2022, de 1 de marzo, por el que se establecen la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Primaria. *Boletín Oficial del Estado*, 2-3-2022, 52, 24386-24504. <https://www.boe.es/eli/es/rd/2022/03/01/157>
- Fernández, M., Fuertes, M.T. (2022). *Educación STEM en la infancia: percepciones del profesorado*. Universitat Internacional de Catalunya. <https://doi.org/10.37467/revtechno.v13.4789>
- Ibarra, I., Atutxa, U. y Iruskietta, M. (2021). *Idazteko zailtasunak detektatzeko eta esku hartzeko proposamena Lehen Hezkuntzan*. IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica, 27, 1-29. [https://doi.org/10.37261/27\\_alea/1](https://doi.org/10.37261/27_alea/1)
- Juegos de vuelta a la cama.* (s. f.). Juego y Deporte. <https://www.juegoydeporte.com/juegos/de-vuelta-a-la-calma/>
- Marin, C. y Zamora, P. (2021). *Tifotecnologías para el alumnado con discapacidad visual*. ACADEMO. Revista de investigación en Ciencias Sociales y Humanidades. <http://dx.doi.org/10.30545/academo.2021.ene-jun.10>
- Martin, O y Santaolalla, E. (2020) *Educación STEM. Formación con conciencia*. . Padres y Maestros, 41-46. <https://doi.org/10.14422/pym.i381.y2020.006>
- Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura. (2017). *Guía para asegurar la inclusión y la equidad en la educación*. UNESCO.
- Navarra, Parlamento. (2022). Ley Foral 67/2022, de 22 de junio, sobre el currículo de las enseñanzas de la etapa de educación primaria en la Comunidad Foral de Navarra. *Boletín Oficial de Navarra*, 1-7-2022, 130.
- Noemi. (2013). *Aplicación para niños con dislexia*. Educacion 2.0. <https://educacion2.com/aplicacion-para-ninos-con-dislexia/>
- Ocon, M. (2016). *Teoria marrazkien interpretazioa* [Apuntes de clase]. [Teoria marrazkien interpretazioa](https://www.teoria-marrazkien-interpretazioa.com/)
- Rodríguez Gudiño, M., Jenaro Río, C. y Castaño Calle, R. (2022). La percepción de los alumnos como indicador de inclusión educativa. *Educación XX1*, 25(1), 357-379. <https://doi.org/10.5944/educXX1.30198>
- Traductor braille.* (2021). <https://traductorbraille.com/>
- Trebol, F. (2010). *Hezkuntza Bereziaren Oinarri Psikologikoak. Aniztasunaren trataera*. Udako

San Frantzisko eskolako sukaldaritza proiektura bideratutako protokoloa

Euskal Unibertsitatea.


Trebol F. (2022). *Protokolo fitxa*. [Apuntes de clase]. [Protokolo fitxa eredu](#)

*Videojuego. TRADISLEXIA. Manual de uso e instrucciones*. (s. f.).  
<http://www.ocideidi.net/pdf/manual-tradislexia.pdf>



## ERANSKINAK

### 1. Eranskina



### 2. Eranskina

DATA	ESPAZIOA	GORPUTZ HIZKUNTZA	EZAUGARRI EDNOGENOAK	EZAUGARRI EXOGENOAK	AHOTSA

### 3. Eranskina

PIKTOGRAMAK/PICTOGRAMAS

### 4. Eranskina

BRAILLE TRANSKRIPZIOAK

### 5. Eranskina

ESPAZIOEN DESKRIBAPENAK/BRAILLE

### 6. Eranskina

eskema esku hartzea.PDF

### 7. Eranskina

[IKASLEAREN EBALUAZIOA](#)  
[PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA](#)

### 8. Eranskina

ESKU HARTZE TXOSTENA